

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA  
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

**EBANJELIZATZEA FEDERIK EZAK  
JOTAKO EGUNOTAN**

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA  
ETA GASTEIZKO GOTZAINEN IDAZKIA**

**1994, GARIZUMA-PIZTUERA KO PAZKOA**

**AURKIBIDEA**

---

**SARRERA (1. z.)**

Ebanjelizatzaera deituak (2. z.)  
Federik ezak jotako egunotan (3-4. z.)  
Eliza osoaren kezka (5-6. z.)  
Histori une berria (7. z.)  
Espirituarengan ustea jarriz (8. z.)  
Bi helburu zehatz (9-10. z.)  
Nori hitz egiten diogu (11. z.)  
Idazkiaren egitura (12. z.)

**I.- EBANJELIOARI UKO EGITEN ETA EBANJELIOAREN  
BEHARRA (13. z.)**

Ebanjelioari uko

- Erljio-ardurarik eza (14. z.)
- Balio etikoak hustuta (15. z.)
- Fedea zabaltzeari dagokion krisia (16. z.)
- Kristautasunetik bueltan (17. z.)

Salbamenaren beharra (18. z.)

- Argirik gabe (19. z.)
- Ez ogiz bakarrik (20. z.)
- Galtzeko arriskua (21. z.)
- Nolako gizakia. (22. z.)
- Askatasun ametsa (23. z.)
- Itxaropen-krisia (24. z.)
- Zer egin erruarekin? (25. z.)
- Bizitza hau besterik ez? (26. z.)

## **II.- EBANJELIZATZERA BERRIRO DEITUAK (27. z.)**

Erantzun onartezinak (28. z.)

Ebanjelizatzeako ordua (29. z.)

Premiazko hiru helburu

- Eliza berez eta nagusiki ebanjelizatzaile (30. z.)
- Ebanjelizatzea, sinestedun guztien langintza (31. z.)
- Pastoralta ebanjelizatzailea suztatu (32. z.)

## **III.- ZER DA EBANJELIZATZEA? (33. z.)**

Lehenbiziko ebanjelizatzailea (34. z.)

- Jainkoaren Erreinua iragartzea (35. z.)
- Jainkoaren Berri Ona (36. z.)
- Bihotz-berritzera deia (37. z.)
- Hitzez eta egitez (38. z.)
- Ebanjelizatzen duen biziera (39. z.)
- Behartsuei hots egiten zaie Berri Ona (40. z.)
- Sakabanatuak bildu (41. z.)
- Jesus, Jainkoaren Ebanjelio egina (42. z.)

Ebanjelizatzeako ibilbidea (43. z.)

- Agerian hots egin beharrekoa (44. z.)
- Testigantza bizi (45. z.)
- Konpromezu eraldatzailea (46. z.)
- Jainko biziarengana itzularazi (47. z.)
- Elkartean sartzea (48. z.)

Gaizki-ulertzeak saihestu (49. z.)

- Ohiturakeria pastoraltzan
- Atzera begiratzea (50. z.)
- Bizitza honetarako egitasmoa (51. z.)
- Iragarpen doktrinal hutsa (52. z.)

## **IV.- HARI NAGUSIAK EBANJELIATZEKO GAUR EGUN (53. z.)**

Kristau salbamena, berri on

- Jainkoaren Berri Ona adieraztea (54. z.)
- Jainkoa gizakiaren Adiskide gisa aldarrikatzea (55. z.)
- Jainkoaren Ontasuna egintza bidez erakustea (56. z.)
- Ebanjelizatzearen esperientzia (57. z.)

Indar ebanjelizatzailedun aldarrikapena (58. z.)

- Fedea esnaraztea helburu duena (59. z.)
- Oinarriko erdigunera bildua (60. z.)

- Bila dabilenarenganako ardura (61. z.)
- Elkarrizketa-jarrera (62. z.)
- Moralaren kristau aldarrikapena (63. z.)

Jesukristoren lekuko gizarte arduragabea (64. z.)

- Ez nolana hiko testigantza (65. z.)
- Fededun bakoitzaren testigantza (66. z.)
- Elkartearen testigantza (67. z.)

Kristauen konpromezu eraldatzailea (68. z.)

- Gizakiari zerbitzua (69. z.)
- Zuzenbidearen alde lan eginez (70. z.)
- Behartsuen ondoan (71. z.)

Bihotz-berritzera deia gaur egun (72. z.)

- «Lehenengo bihotz-berritzea» (73. z.)
- Esperientzia erlijiosoa berregitea (74. z.)
- Bihotz-berritzea berri on gisa (75. z.)

Gure kristau elkarteetako harrera (76. z.)

- Kristau elkarten biziberritzea (77. z.)
- Elkarte harreragileak (78. z.)

## **V.- PASTORAL EBANJELIZATZAILE BATERA ITZULI BEHARRA (79. z.)**

Misiolari-kontzientzia berreskuratu (80. z.)

- Elizbarrutiaren beraren parte hartzea
- Apaizen erantzukizuna (81. z.)
- Erlijioso-erlijiosoen aitortzea (82. z.)
- Sekularren erantzukizuna (83. z.)
- Familia (84. z.)

Parrokia elkarte ebanjelizatzaile gisa garatzea (85. z.)

- Sakonetik bihotz-berritzea (86. z.)
- Misiolari proiektua (87. z.)
- Pastoral Kontseilua misiogintzarako (88. z.)

Aldarrikapen eta katekesi misiolaria indartzea (89. z.)

- Adinekoen katekesia (90. z.)
- Gazteen ebanjelizatzea (91. z.)
- Urrunduei hots egitea (92. z.)
- Katekista ebanjelizatzaileen prestakuntza (93. z.)

Kristau ospakizunen eragin ebanjelizatzailea indartu (94. z.)

- Liturgia era ebanjelizatzailean egina (95. z.)
- Igandeetako Eukaristia (96. z.)
- Apaizen erantzukizuna (97. z.)

Gizagintzaren erantzukia indartu (98. z.)

- Elkartearen erantzukia gizagintzan (99. z.)
- «Behartsu berrien» alboan (100. z.)
- Sekularren erantzukia gizartean (101. z.)

**AZKENA** (102. z.)

## SARRERA

1. Gure erantzukizuna da gure elizbarrutiak, Kristo berpiztuaren espirituari dagokion eran arnastea eta gidatzea. Horretaz jabeturik gaudelako, ozen esan nahi dugu eta gure kristau elkarteei gogorarazi nahi diegu, gaur ere, fedearentzat une latzak bizi ditugunean, gaur ere «ebanjelizatzea duela Elizak bere poza eta berezko bokazioa, bere nortasunik sakonena. Eliza, izan, ebanjelizatzeke da»<sup>1</sup>.

### Ebanjelizatzerak deituak

2. Elizaren eginkizunik beharrezkoenera dei egin nahi dizuegu guztioi: gaurko gizon-emakumeei «Jainkoaren Berri Ona hots egitera»<sup>2</sup>. Kezka honexek bildu eta batu behar ditu, era berri eta sutसान, gure ahalegin, lan eta ekintza guztiak: Jesukristoren Ebanjelioa, «sinesten dutenak salbatzeko indarra»<sup>3</sup> den Ebanjelioa, gaurko gizarteari aurrean jartzeak. Berrero ere entzun beharra daukagu gure bihotzetan Berpiztuaren agindu hura, hori baita guretzat zereginik pozgarriena, eginbeharririk larriena eta deirik presazkoena: «Zoazte mundu guttira eta hots egin Berri Ona gizaki guztiei»<sup>4</sup>. «Zoazte eta egin ikasleak herrialde guztietatik; bataia itzazue Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren ize-nean, eta erakutsi haiei, Nik agindu dizuedan guztia betetzen. Begira, Ni zuekin nauzue egunero, munduaren azken egunera arte»<sup>5</sup>.

### Federik ezak jotako egunotan

3. Urte gutxitan, sakon-sakonetik aldatu da gure arteko erlijio-giroa. Azken hamarkada hauetako sozial eta kultur aldaketa sakona kristau dezenteren fedea ahultzen ari da, eta biziera morala, pertsonala, familiakoa eta gizartekoa desegiten. Askotxo dira beren bizitza Jainkorik gabe eta inolako kristau erreferentziarik gabe bizi dutenak. Ez du ematen Jainkoaren beharririk daukatenik beren izarteari sentidua emateko. Indiferentziak eta erlijioarekiko maitasunik ezak koloretzen du gaur nagusi den kultura, eta berdin pertsona askoren pentsakera, us-teak, portaera eta bizimoldea ere.

---

<sup>1</sup> Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki apostolikoa, 14. z.

<sup>2</sup> Mk 1,14.

<sup>3</sup> Erm 1,16.

<sup>4</sup> Mk 16, 15.

<sup>5</sup> Mt 28,19-20.

Azken urte hauetan, Euskal Herriko Gotzainok, gure Pastoral Idazkien bi-dez lagundu nahi izan dizuegu «federik ezak jotako egunotan fededun izaten»<sup>6</sup>. Ahaleginak egin ditugu aztertzen eta hobeto ulertzen zeintzuk diren hainbeste jende indiferentziara eraman duten arrazoi eta esperientziak. Arnasa eman dizuegu zeuon fedea biziberri dezazuen eta kristau esperientziaren ondasuna berriro aurki dezazuen, kristauongan ere bere eragina izan dezakeen giro fedegabetu honetan. Berreskuratu nahi izan dugu Jainko biziarengan dugun fedea, gizartean oso gaizki ikusia, eta Jainkoaren irudia garbitu nahi izan dugu, giza bihotzak hainbestetan itxuragabetu duena<sup>7</sup>. Saiatu gara zuei adierazten nola lagun diezagukeen Jesukristoren Ebanjelioak gure giza eginkizuna sentidu be-tegoz burutzen, erantzukizun argitsuagoz eta itxaropen alaiagoz<sup>8</sup>.

**4.** Ez da, ordea, aski fedea bizitzea. Komunikatu ere egin behar dugu. Gure elizbarrutietako elkarteak helburu honetara begira jarri nahi ditugu: «Ebanjelizatza, federik ezak jotako egunotan». Une hauetan hauxe dugu geure ahalegin nagusia.

Behin baino gehiagotan jakinarazi dizkizuegu, erlijio-krisia sakonaren aurrean, fededun eta artzain bezala sortzen zaizkigun galderak: itxuraz erlijioaren interesik erakusten ez duten gizon eta emakume hauek, ez ote dute dagoeneko erlijioaren beharrik? Garai batean beren bihotzetan izan zuten fede hura, zertan gelditu ote da? Betirako itxi ote diote beren barrua Jesukristori? Zerk urrutiratzten ditu belaunaldi berriak gure Elizatik? Zer dela-eta ez dute ikusten Jainkoa «gizakiaren zaindaririk onena eta lagunik handiena»<sup>9</sup> bezala?

Galdera hauek barru-barruko interpelazio batetik sortzen zaizkigu, Kristok berak gizaki orori Ebanjelioa hots egiteko eman zigun agindutik. Eta interpelazio honek gure kristau elkarte guztietan eta bakoitzean izan behar du bere oihartzuna: nola izan daiteke Ebanjelioa gizarte honentzako berri edo albiste, eta gainera berri on? Nola iragarri Kristo, Bera ezagutu ondoren gaur bazterrera utzi duten gizon-emakumeei? Nola azaldu Ebanjelioa era sinesgarrian, Haren mezua entzun ondoren zapuzten dutenei? Nola aurkeztu kristau salbamena, itxuraz behar ez dutenei? Hau da: nola iragarri eta eskaini gaurko gizon-emakumeei Jesukristoren biziaren eta salbamenaren Ebanjelioa, baina iragarri eta eskaini, oraintxetik betiko Biziaren promesa bezala onartu, bizi eta sentitzeko moduan, hori bai, gure giza izatearen muga eta ahultasunaren barruan?

## **Eliza osoaren kezka**

**5.** Kezka hau ez da gurea bakarrik. Eliza osoan sentitzen da, era berri eta larrian, pastoral lan eta ahaleginak eginkizun ebanjelizatzaile honetara tolestatu beharra. Behin eta berriz gogorarazi die Aita Santuak Elizei «ebanjelizatze berri

---

<sup>6</sup> *Fededun izan federik ezak jotako egunotan* (1983, Garizuma-Pazkoa); *Salbamena eta kristau bizitza. Poza eta itxaropena* (1990, Garizuma-Pazkoa); *Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi berri ona* (1991, Garizuma-Pazkoa).

<sup>7</sup> *Jesukristoren Jainkoagan sinestea gaur egun* (1986, Garizuma-Pazkoa).

<sup>8</sup> *Gizonaren egiazko aurpegi bila* (1987, Garizuma-Pazkoa); *Gizalegezko bizitzaren zerbitzura* (1992, Garizuma-Pazkoa).

<sup>9</sup> *Gizonaren egiazko aurpegi bila* (1987, Garizuma-Pazkoa), 2. z.

baten premia larria»<sup>10</sup>. *Redemptoris missio* entziklikan honela esaten du: «Ikusten dut iritsi dela, eliz ahalmen guztiak ebanjelizatze berriari eta *ad gentes* misioari eskaintzeko unea»<sup>11</sup>. Hori bera esaten genuen Gotzainok orain urte batzuk: «Gure Elizen oraingo garaiak, ebanjelizatze-garai izan behar du»<sup>12</sup>. Eta orain zuen aurrean egin nahi ditugun galdera berak egiten genituen orduan: «Nola mintza Jainkoaz eta beraren Erreinuaz gaurko munduan? Nola suztatu indar ebanjelizatzaile eta misiolari sutsuagoa gure kristau senideengan? Nola hobetu bizi garen mundu honekiko gure zerbitzua?»<sup>13</sup>.

6. Indar berriz ebanjelizatzea eta egiazko fedea zabaltzea da guk eman deza-kegun laguntzarik onena, gure gizarte honi egiaz aurrera egiten eta egiazko giza-tasunean hazten laguntzeko. Hori horrela izanik, zuen indar guztiak ebanjeliza-tzeari begiratzen dion pastoralgintzan biltzera gonbidatzen zaituztegunean, ez dugu ezjakinarena egin nahi eta ez dugu saihebidetik jo nahi, gaurko gizon-emakumeek minez sufritzen dituzten arazoen aurrean. Ezta gutxiagorik ere: ahalegin guztiak egiten ditugu gaurko gizakiari eskaintzen, Elizak eman diezai-keen zerbitzurik beharrezkoen eta eraginkorrena; gure ustez Jainkoaren grazia eta salbamena onartzea eta Jesukristori atxikitzea baitira argirik distiratsuen, bultzadarik sendoena eta biderik egokiena, gizatasunezko bizitza oretzeko, bai nor bakoitzarentzat bai gizartearentzat.

## Histori une berria

7. Beste ezer baino lehen, gure elizbarrutiak honetaz jabetzea nahi dugu: his-tori une berria hasi dela gure Elizarentzat. Orain gutxi arte, gure parrokia eta kristau elkarteak eta gu guztiok bizi izan gara, zuzenean edo zeharka kristau fe-detik sortutako kultura baten barnean. Gaur ez dago horrelakorik. Denok suma-tzen dugu garbi asko, kultur giro haren ordeztuak beste bat ari dela nagusitzen, eta kultura berri hori agnostizismotik eta sinesgabeziatik dator gehienbat.

Kulturaldi bat bukatzen ari da gure artean; kristau fedea berez bezala bizi, irakatsi eta zabaltzen zen kulturaldia, hain zuzen. Gure Elizaren historian aldi berri bati hasiera ematea tokatzen zaigu guri gaur, lehenengo garaietako sugar, fede eta arnasa berarekin. Ebanjelizatze-lana betikoa da. Eta, hala ere, «ebanje-lizatze berriaz» hitz egiten dugu; izan ere, Jesukristoren salbamena hots egin eta eskaintzeko lana, baldintza berrietan burutu behar baitugu eta kulturaz ez-berdina den gizakiarentzat. Ez da metodo eta pastoralgintza berrien kontua ba-karrik. Aita Santuak «ebanjelizatze-kalitate berrira»<sup>14</sup> gonbidatu gaitu eta «Ebanjelioaren eta bizitzaren arteko batasun berri eta eragilea»<sup>15</sup> egitera.

---

<sup>10</sup> Joan Paulo II.a, *Christifideles laici* Aholku-idazki apostolikoa, 34-35. z.

<sup>11</sup> Joan Paulo II.a, *Redemptoris missio* Aholku-idazki apostolikoa, 3. z.

<sup>12</sup> *Testigos del Dios Vivo. Reflexión sobre la misión e identidad de la Iglesia en nuestra sociedad*. Espainiako Gotzainen Batzarra, 53. z.

<sup>13</sup> *Ibid.*, 5. z.

<sup>14</sup> Europako Gotzain-Batzarren Buruei idatzitako Gutuna (1986-1-2): *Ecclesia* 2.253 (1986), 114. or.

<sup>15</sup> Europako Gotzain-Batzarren Biltzarrari eginiko Mintzaldia, (1985-X-11), 2. z.: *Ecclesia* 2.242 (1985), 1321. or.

Oso garrantzizkoa da, eliz aro honen inportantzia eta esanahia ondo jasotzea. Jesukristoren Ebanjelioa gaurko gizakiari hots egiteko sasoi-punttuan jarri behar dugu geure burua; denon artean bilatu behar dugu geure Eliza biziberritu eta eratzeko modua, gure gizartean Ebanjelioaren «ezaugarri eta bitarteko» eragile izan dadin; denon artean bilatu behar dugu geure buruak berritzeko modua, Kristo zintzoki zerbitzatu ahal izateko, «Hura garai orotako gizakiaren bidera ateratzen baita, baita gure garaikoarenera ere, hitz berberak esanez: ‘Ezagutuko duzue egia eta egiak zeuon buruen jabe egingo zaituzte’»<sup>16</sup>.

## **Espirituarengan ustea jarriz**

**8.** Gure gizartea ebanjelizatze eginkizun hau gure indarrentzat gehiegizkoa eta neurritz kanpoko irudituko zaigu beharbada. Baliteke barrutik zirika ihardutea honako susmo honek: gaurko gizakia ez dela gauza Jainkoaren deia entzuteko eta Kristoren biztuerak historian sartu duen indar berritzaile eta salbatzaile horri erantzuteko. Moisesen tentaldia bera senti dezakegu: «Ez didate sinetsiko»; «ez dakit hitz egiten»; «ez didate jaramonik egingo»<sup>17</sup>; eta koldareriak elbarriturik utz gaitzake, pentsatuz, gaur tokatzen zaigun eginkizunaren mailarik ez dugula emango.

Eta, hala ere, ez zaigu geure ahalmenen gainetik dagoen ahaleginik eskatzen. Agnostizismoak eta indiferentziak zauritutako kultura horretan, Jainkoaren Espiritua ari da lanean, gu geure pastoral ebanjelizatzailea antolatzen hasi aurretik. Guri Espirituaren egintzari laguntzea eskatzen zaigu, eta Hitzaren eta Jainkoaren maitasunaren adierazle sinesgarriagoak egingo gaituen bihotz-berritzea bultzatzea. Ez dugu ahaztu behar: Jainkoaren Espirituak ari du bere salbaziogintza historian, eta egiatzko ebanjelizatzea egintza horri zerbitzu egitea eta eskuhartzea da beti.

Beraz, «ebanjelizatze berria» ez da, halako batean borondate onak eraginik denok dantzan jartzen gaituen ekintza. Vatikanoko II. Kontzilioaz geroztik, baitipat, Espiritua nabarmenago suztatzen ari den esperientzia da. Ebanjelizatze-eginkizunaz garbiago eta serioago jabetzea da orain eskatzen zaiguna, eta gaurko gizartean Ebanjelioaren indar salbatzailea txertatzeko beharrezkoa den eliz berrialdia areagotzea.

## **Bi helburu zehatz**

**9.** Hasieratik bertatik azaldu nahi dizkizuegu, Pastoral Idazki honen bizkarrezurra diren bi helburuak; biak oso gogoan eduki beharrekoak une hauetan<sup>18</sup>.

Lehenengoa, *kontzientzia ebanjelizatzailea berreskuratzea*. Denbora luzean egin dute beren lana gure artean, fedea «zabaltzeko» baliagarri ziren bide tradizionalak. Apaizek predikatzen zieten igandez mezarara etorritako fededu-

---

<sup>16</sup> Joan Paulo II.a, *Redemptor hominis*, Aholku-idazki apostolikoa, 12. z.

<sup>17</sup> Ex 4.

<sup>18</sup> Hori bera gogorarazten genizuen *Fededun izan federik ezak jotako egunotan* izeneko gure Pastoral Idazkian (1988, Garizuma-Pazkoa), 67-68. z.



nei, gurasoek kristauki hesitzen zituzten beren seme-alabak, katekista eta maisuek kristau dotrina irakasten zieten beren ikasleei. Horrek aski zela ematen zuen. Kultur giroa aski zen erlijioa praktikatzeko. Ez zen ikusten egintza ebanjelizatzaile baten beharrik.

Gure Elizen ardura guztia eliztarren zerbitzura eta beharretara bildua zegoen. Pastoralgintzaren kezka nagusia guztiek omen zeukaten fede hura doktrinaz jaztea zen eta fede hari bizirik iraunaraztea sakramentuen bidez. Pixkanaka, parrokien lana katekesiara, elizkizunetara eta erlijio-egintzetara bildu zen, bizi-tasun misiolaria galduz eta egintza ebanjelizatzailea ahaztuz.

Elizbarrutien artzainok daukagun erantzukizunetik eta Jesusen agindu ebanjelizatzailea leialtasunez entzuteko gure borondatek zera esan nahi dizuegu: hainbeste urtetan zehar ahaleginez eta bihotz handiz, orduan egin behar zena eginez, egin dugun hori, gaur ez da jadanik nahikoa gizarte arduragabetu eta fedegabetu honetara Ebanjelioa eramateko. Horregatik, gaur eguneko krisia grazi ordu eta akuilu gerta daiteke kontzientzia ebanjelizatzailea berreskuratzeko eta berriro ere pozik aurkitzeko, zein den Elizak eta kristau elkarteek munduan daukaten egiazko eginkizuna.

**10.** Bigarrena, gaur *ebanjelizatzen ikastea*. Ebanjelizatzea bat bera da beti eta «bere eraginaren oinarri, ardatz eta buru bezala iragarpen bat bera eduki behar du: Jesukristorengan, Jainkoaren Seme gizon egin, hil eta berpiztuarengan, eskaintzen zaiela gizon-emakume guztiei salbamena, graziaren eta Jainkoaren onginahiaren dohain bezala»<sup>19</sup>. Baina Ebanjelio hori hots egiteko kultur uea eta gizakia bera desberdinak dira. Horregatik, gaurko gure lehen eginkizuna, apala bezain larria, ebanjelizatzen ikastea da. Garai batean tradizioz kristau izandako eta gaur Jainkoaz arduratzen ez den gure gizarte honek eskatzen digun ebanjelizatze hori bideratzea.

Ez daukagu esperentziarik. Asko kostako zaigu garai bateko jarrera eta portaerak erantztea. Fedea samur-samur onartzen zuten pertsonen hots egiten ohituak geunden, eta orain ez dakigu nola hasi elkarrizketan fedegabekoekin eta nola adierazi Jesukristo indiferentzian daudenei. Epe ireki eta sortzailean sartu gara, aukera asko eta kilikagarriak dituen epean. Denok hartu behar dugu parte epe honetan, bakoitzak bere erantzukizun eta laguntzaz. Guk geure aldetik, hari nagusi batzuk eskaini nahi dizkizuegu, ebanjelizatze-bide berriak urratzen laguntzeko.

## **Nori hitz egiten diogu**

**11.** Aurrena geure buruei eta zuei, apaizoi, hitz egiten dizuegu, zuek baitzarete gure laguntzaile nagusiak pastoral erantzukizunean eta apostoluzan. Aldaketa sakona eskatzen zaigu geure pastoralgintzan, gure parrokia eta kristau elkartetan espiritu misiolari eta ebanjelizatzaileagoa txertatzeko. Behar adinbat sakondu ez dugun eginkizun larria da, beharbada, eta guztioi «esku-ezartzeaz eman zitzaigun Jainkoaren karisma berritzea»<sup>20</sup> eskatzen digu.

---

<sup>19</sup> Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki apostolikoa, 27. z.

<sup>20</sup> Ikus 2 Tm 1,6.

Erlijosio eta erlijiosoen elkarteei ere dei egiten dizuegu. Zuen bokazioa Kristoren erabateko jarraipena denez, gure gizartean «Jainkoaren Erreinuaren ezaugarriak» erein behar dituzue ahalegin bereziz. Gure Elizek beharrezko dituzte zuen lana eta bihotz handiko zuen laguntza. Baina, beharrezko zaituztegu, beste edozeren gaineratik, «Kristoren goi-maitasunaren testigu aparteko»<sup>21</sup> bezala eta «salbamenaren berrialdirako legami iraunkor»<sup>22</sup> bezala.

Gure dei hau familietaraino ere iristea nahi dugu. Aita-ama askotxok sufritzen duzue zeuen etxean, jadanik zeuen fede bera ez duten etxeen zatiketa. Zuen erantzukizun itxaropentsua esnatu nahi dugu eta zuen sukaldeetan fedea indarberritzera eragin nahi dizuegu. Zuen etxeetan sor dezakezuen erlijio-giroa ez dago ordezkaterik, ezta zuen seme-alabei eskain diezaiekezuen fede biziaren testigantza ere. Gure ustez, belaunaldi berrien fedea edo fedegabezia, neurri handi batean behintzat, familietan dago jokoan.

Baina Ebanjelioa adierazi eta gizarte honetan txertatzeko erantzukizuna, kristau sentitzen zareten guztiona da. Gure parrokia eta elkarteetan halako bihotz zabalez lan egiten duzuen sekularrangan pentsatzen ari gara: katekista, ohargile, hezitzaile, liturgi ospakizunetako laguntzaile, elkarmaitasunaren pastoralgintzan eta beste zerbitzuetan zabilzatenongan. Pentsatzen ari gara, baita ere, kristau elkarteetako kide izanez eta apostolutzako mugimendutan sarturik, gizarte-giroak ebanjelizatzen ahaleginak egiten dituzuenongan. Dei egiten dizuegu, bakoitzak zeuon lanetik era askotara parte har dezazuen guztion eginkizun honetan: Ebanjelioaren arabera biziko diren, eta bizitasun ebanjelizatzaile handiagoa izango duten elkarteak sortzen.

Zuen profesio-lanean, kulturagintzan, politika edo sozial erantzukizunean Ebanjelioaren testigu izan zaitezketen guztiongan ere pentsatzen dugu. Idazki hau idaztean ez dugu ahazten Kontzilioaren esaldi hura: «Sekularren eginkizuna da, bereziki, Eliza begibistako eta eragile egitea, berorien bidez izan ezik inolaz lurraren gatz izatera iritsiko ez litzatekeen toki eta giroetan»<sup>23</sup>. Zuen testigantza eta konpromezuaren bidez ez bada, nekez iritsiko da Ebanjelioaren aldarrikapena eta indar salbatzailea gizartearen josturara.

## Idazkiaren egitura

**12.** Beste ezer baino lehen, gaurko gizartera hurbildu nahi dugu, *Ebanjelioari uko egiten eta Ebanjelioaren beharreak* ikusten dugun gizarte honetara (1. atala). Egoera horrek gudan sor dezakeen jarrera bakarra, baldin eta Kristorekin leial izan nahi badugu, *berritoki ere ebanjelizatzekeo deia* entzutea da (2. atala). Horretatik, ahaleginak egingo ditugu aztertzen *ebanjelizatzea zer den* (3. atala). Eta ebanjelizatzearen ikuspuntua argiturik, *gaur egun ebanjelizatzekeo hari nagusiak* zehaztuko ditugu (4. atala), eta behar diren aldaketak bideratuko, *pastoralgintza ebanjelizatzaile batera itzuli beharra* bultzatzeko (5. atala).

---

<sup>21</sup> Paulo VI., *Evangelica testificatio* Aholku-idazki apostolikoa, 3. z.

<sup>22</sup> Joan Paulo II.a, *Redemptoris donum*, 14 z.

<sup>23</sup> *Lumen gentium*, 33. z.

## I.- EBANJELIOARI UKO EGITEN ETA EBANJELIOAREN BEHARREAN

**13.** Sineste sakon batetik jaiotzen zaigu ebanjelizatzeko dei hau: Jainkoak maite du gaurko gizakia, atzokoa maitatu zuen eta biharkoa maitatuko duen bezalaxe. Hori dela eta, bihotz onez eta esperantzaz hurbiltzen gatzaizkio gaurko munduari. Badakigu jakin, bere Salbatzailea era askotara zapuzten duen mundua dela, baina salbamera inoiz baino gehiago behar duela.

### **Ebanjelioari uko**

Gure herria, erlijiotasun sakonak nabarmendu du bere tradizioan; baina urte hauetan, mendebalean gertatu den sekularizazio-prozesua bizi izan du gero eta abiada azkarragoan. Guztientzat ulerterrazak diren gertaera batzuk aipatu nahi ditugu, gure artean fedeak izan duen atzerakada eta ilunaldia adierazten duten gertaerak.

#### • ***Erljio-ardurarik eza***

**14.** Aurren-aurrena ikusten duguna, federik ezak gure gizartean hartu duen erabateko zabalera da. Vatikanoko II. Kontzilioak esandako hura gertatu da gure artean: «Jendetalde gero eta ugariagoak urrutiratzen ari dira erlijiotik. Jainkoari edo erlijioari uko egitea ez da, garai batean bezala, gertaera bakana edo banakakoa»<sup>24</sup>. Egia da, jende gehienak oraindik ere nolahala sinesten duela Jainkoarengan; baina erraz ikus daiteke, gaurko kulturak gure artean zabaltzen duen munduaren, gizakiaren eta historiaren ikuspuntuak federik gabeko norabidea ematen diola bizitzari. Gaur sortzen den zientziak, arteak eta literaturak, eta gure etxeak erasotzen dituzten komunikabideek, neurri handi batean, federik eza oinarri duten kultura zabaltzen edota eragiten dute.

Ikusten duguna ez da Jainkoari argi eta garbi uko egitea, ardurarik gabeko jarrera baizik eta sentiberatasun-falta, Jainkoarekiko fedearen planteaketa bera egitekoan. Hainbat pertsonarengan Jainkoak ez du inolako interesik sortzen. Pixkanaka mamitzen ari den bizimodua, inolako trszendentzi kolorerik gabekoa da, egunerokotasunean murgildua, beste erakargarritasunik eta balio sakonik ez duena, eguneroko zorion berehalakoa izan ezik; eta zorion horren iturria, ondasun materialen jabetza eta gozamina da.

Bien bitartean, garai batean sentidua, oinarri morala eta salbamen-esperantza eskaintzen zuen Jainkoaganako fedea, gero eta baztertuagoa dago, garrantzirik ez duen zerbait atzerakoa balitz bezala. Jainkoa badela onartzen denean ere, Hura ez da ikusten Adiskide eta Salbatzaile bezala. Jainkoa ez da Berri On<sup>25</sup>.

Jarrera honekin ez da ondo lotzen pertsona arduragabe edo urrundu askoren jokabidea ere, sakramentuz ospatzen baitute beren ezkontza, edota bataia-

---

<sup>24</sup> *Gaudium et spes*, 7. z.

<sup>25</sup> Fedegabeziaren azterketa sakonagoa egin nahi bada, ikus *Fededun izan federik ezak jokatuko egunotan* gure Pastoral Idazkia (1988, Garizuma-Pazkoa), 1-35. z.

tzera eta Lehen Jaunartzea egitera ekartzen baitituzte beren seme-alabak. Horrela, kristau bizitzatik urruntzen diren aldi berean, beren egiazko esanahia murriztutako sakramentu-ospakizunak egiten dituzte, erlijiozko ospakizun ez, baikiz eta jendaurreko ekintza huts bihurtzeko arriskuan jarritz.

- ***Balio etikoak hustuta***

**15.** Erlijio-arduragabekeria honekin batera, gaur nagusi den kultura razionalista eta biziera pragmatiko eta atseginzalea, itzaltzen ari dira pixkanaka kontzientzietan kristau argia eta eduki etiko guztia. Produkzio teknikoak, ekonomia-egokierak eta ekintza politikoak beren eraginkortasuna eta etekin-bidea ezarri nahi dituzte, etika-kutsuko ezeri tokirik utzi gabe. Eta horretatik, halako uste nabaria zabaltzen ari da: balio etikoak eta, bereziki, kristau fedea argituriko balio etikoak galga direla eraginkortasun eta aurrerapenarentzat, edota oztopo direla libre eta atseginez bizitzeko.

Bide batez, ez da zaila «kontzientzien sekularizazioa» areagotzen ari dela ikustea. Jainkoak gero eta zerikusi txikiagoa dauka norberaren portaeran. Askotxo dira, Elizak eman dien moral irakaspenera jo beharrik sentitzen ez dutenak, beren jokamoldeak zehaztekoan. Pertsona askorengan «balio etikoak hustu direla» ere esan daiteke; izan ere, oinarrizko irizpideak galtzean, moral sentiberatasuna galtzen dute, edota bakarkako edo taldeko interes hutsak eraginda dabil-tza. Ez da, beraz, batere harrizkekoa, egiten zaien bihotz-berritzeko deia beren giza izatearen mozketaz bezala ikustea, eta ez bizi osoago eta askatuago baten eskaintza bezala<sup>26</sup>.

- ***Fedea zabaltzeari dagokion krisia***

**16.** Bizigiro sozio-kultural honetan, oso erraz ikus daiteke fede-zabalkundearen krisia sakona. Familia eta eskola ez dira orain, askotan behintzat, belaunaldi berrientzat, sinesten ikasteko toki. Beste aldetik, egiten diren pastoral aha-lerinak eginda ere, oso gazte gutxik egiten dute fedean sartzeko bidea, Jesukristorengan sendo sinestera iritsi ahal izateko kristau elkartearen barnean.

Hona hemen datu mingarria. Gure kristau elkarteek ezin dituzte gazteak fedean sustraitu; gizarteak, bien bitartean, Ebanjeliotik urruti dagoen izaera eta bizieran eskolatzen ditu. Jaso ahal izan duten kristau heziera berehala irensten die gizarteko presioak. Eta belaunaldi gazteek uste dute askatasunezko berri ona aurkituko dutela, ez Jesukristorengan gizaki egin den Jainkoarengan, baizik eta diruaren, sexuaren, drogaren sasijainkoetan, edo dena berari eskaintzeraino erakartzen eta liluratzen dituen mugagabeko kontsumokeriaren «herritar erlijio» berrian.

- ***Kristautasunetik bueltan***

**17.** Gure garaiok bizi duten erlijio-arduragabekeria hori ez da izaten, eskuarki, norberak hartu duen erabaki baten ondorio, ezta gogoeta baten ondorio ere.

---

<sup>26</sup> Ikus *Jesusi jarraitzea eta kontzientzia morala* gure Pastoral Idazkia (1985, Garizuma-Pazkoa).

Gizarteko giroaren ondorio praktikoa da, erlijio-sena pisua galtzen joan baita, sozial alorrean garrantzia eta izen ona moteltzearekin batera.

Prozesu hori erlijio-praktika uztetik abiatzen da. Gero Elizatik urruntzea dator, fedearen edukia urtu egiten da, eta moral kontzientzia eta portaera maskaldu egiten dira. Pertsonaren bizimugatik ezkutatu egiten dira Jesukristorengan agertu zaigun Jainkoa, salbamenarekiko ardura eta Ebanjelioaren mezua. Horrelako pertsonak «ez dute sentitzen, dirudenez, inolako erlijio-kezkarik eta ez dute erlijioaz arduratzeko arrazoirik ikusten»<sup>27</sup>.

Baina garrantzizkoa da gogora ekartzea, pertsona nagusien arduragabeke-ria hau kristautasuna ezagutu eta gero etorri dela, kristautasun hori «behartu antzean» jasotako axaleko heziera eta ohiturakeriazko praktika izan bada ere. Pertsona horiek kristautasuna ezagutu uste dute, eta beren esanean esperientziaz dakite, Elizak esaten eta errepikatzen dituen hitzek ez dutela mamirik; eta kristau liturgia aspergarria dela. Erlijioaren esperientzia ez da batere ona izan horientzat. Esaten dutena egia baldin bada, ezagutu duten Jainkoa ez zaie gertatu grazia, askatasun, bizitzeko indar eta poz, ezta hiltzeko esperantza ere.

## Salbamenaren beharra

**18.** Gaurko gizakiak, hala ere, garai guztietako gizakiek bezalaxe, ez du bere osotasunik lortuko, graziaren Jainkoarekin maitasunez topo eginez eta Honen salbamen-asmoa onartuz ez bada. Horregatik, egungo kultura modernoak Jainkoa ukatu eta traszendentzia ahazten duenean, itxi egiten dio gizakiari bere helmugara, hau da, betiko bizira eramango duen bide bakarra.

Esaten dugun hau ez da Elizak daukan uste sakona bakarrik. Izan ere, Elizak «sinesten du, guztionatik hil eta berpiztu den Kristok ematen dizkiola, bere Espirituaren eraginez, gizakiari argia eta indarra, bere giza bokazioari erantzuteko; eta ez zaiola gizakiari zerupean salbatuko duen beste izenik eman»<sup>28</sup>. Baina hori, Elizaren ustea izateaz gain, gaurko gizon-emakumeen esperientzian era askotara ikus daitekeen gauza ere bada.

### • *Argirik gabe*

**19.** Gaurko gizakia, zientzi pentsamoldeak eraginik, dena ezagutzen eta menpean hartzen saiatzen da; baina ezin ditu ezagutu eta menpean hartu, bere izatearen sorrera, sentidua eta helburua. Beharbada esan beharko genuke, gainera, zientzi aurrerapenak areagotu egiten duela gizakiak daukan beste argi baten beharra. Jainkoa ukatzean, gaurko gizakia biziaren misterioarentzako erantzunik gabe gelditzen da, argirik gabe, «nondik datorren» eta «nora doan» ikusteko. Gizaki horrek ez ote du behar «mundura etorritako gizaki oro argitzen duen [Hitzaren] egiazko argia»?<sup>29</sup>.

---

<sup>27</sup> *Gaudium et spes*, 19. z.

<sup>28</sup> *Ibid.*, 10. z.

<sup>29</sup> Jn 1,9.

- ***Ez ogiz bakarrik***

**20.** Gaurko gizakiak, bere beharrak asetzearren, bere bizitza janaritzeko egoki iruditzen zaion guztia bilatzen du. Izan ere, gaurko gizarte garatuak ongi-izate materiala atergabe bilatzera eragiten die pertsoneri. Baina, bide batez, isildu ezinezko galderak entzuten hasi gara: Norantza goaz gure aurrerapen guzti honekin? Gizakiaren benetako premiei erantzuten ari ote gara? Gure on betea non dagoen eta zer den ba ote dakigu? Gaur ere ez ote da egia «gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi, Jaungoikoaren ahotik ateratzen den hitz guztitik baizik»?<sup>30</sup>.

- ***Galtzeko arriskua***

**21.** Zientzi eta teknika-aldetik egin ditugun aurrerapenak eginda ere, ez dirudi gizakia gizakiago egin denik. Askotan bere gizatasuna kentzen zaio, tresna huts bihurtzen da, bere ahalmenaren gatibu eta solidaritza-senik ez duen lehiakortasun itsuan sartuta. Orduan ikus daiteke «gaurko mundua une berean indartsua eta ahula dela, onena eta gaiztoena egiteko gai; bidea zabalik baitauka askatasuna ala morrontza aukeratzeko, aurrerapena ala atzerapena, senidetasuna ala gorrotoa»<sup>31</sup>. Hortik, kultura modernoak bizi duen sentipen-nahasketa: alde batetik, gizakiak lortu duen ahalmenak harrotzen du; bestetik, etorkizunari begira jarrita, segurantzarik gabe eta zalantzan ikusten dugu. Aski al du gizakiak bere buruarekin? Ez ote dio bere izatea, bera baino handiagoa den Norbaiti ireki behar? Ez al litzateke dena beste era batera izango, berriro ere Absolutuarengan sustraituko balitz eta bere izatea Jesukristoren Jainkoarekiko federa zuzenduko balu, gizakiaren betetasuna bilatzen duen Jainkoaren federa? Jainkoak bere Semea bidali digu gizon-emakumeoi, «Haren bitartez mundua salba dadin»<sup>32</sup>. Ez ote dugu Seme honen beharrik?

- ***Nolako gizakia?***

**22.** Moral balioekiko krisia sakona bizi baldin badugu ere, ezin dezakegu honako galdera hau egin gabe utzi: nolako gizakia sortu nahi dugu, eta nolako gizarte eratu? Nola zehaztu eta borrokan jarraitu berehalako helburu sozial eta politikoak lortzeko asmoz, baldin eta ez badakigu edo jakin nahi ez badugu zein den geure izate-arrazoia, pertsonen bizitzaren sentidua edo giza proiektua? Gaurko gizakiak, beste garaietakoak bezalaxe, jakin nahi du, zeintzuk diren bilatu behar dituen benetako balioak, gizakiaren askatasun egiazko eta betera iris-teko. Ez da aski, horretarako, bakoitzari iruditzen zaizkion balio zehaztu gabeko eta aldakorrekin. Ez da aski, une bakoitzean sozial eta legezko adostasun berri bat lortzea ere, balio etikoenganako lotura egokirik gabe. Hainbeste interes kontrajarri eta hainbeste gutizia atseginzale dituen gizarte honetan, ziurta ote daiteke, besterik gabe, bizi ororen babes eta pertsona guztien duintasuna? Ez ote da beharrezko, balio absoluturen baten erreferentzia? Ez ote da beharrezko, gizakiarentzat «bidea, egia eta bizia»<sup>33</sup> den Jesukristo?

---

<sup>30</sup> Mt 4,4.

<sup>31</sup> *Gaudium et spes*, 9. z.

<sup>32</sup> Jn 3, 17.

<sup>33</sup> Jn 14,6.

- **Askatasun ametsa**

**23.** Gizaki modernoak badu egiazko askatasuna lortzeko amets sakona. Baina amets hori ez zaio beti askapen bihurtzen. Ez dira gutxi, lehengo erlijio-lotura eten ondoren, beren bizitza morrontza, ideologia eta adostasun berrietara lotzen dutenak, beren bakarkako edo gizartearekiko erantzukizunean hazi gabe. Gizaki argitsuago eta erantzuleagoa sortzen ikusi ordez, sarri askotan beren buruen eta beren giza garapenaren jabe ez diren «morroi asean» jaiotza ari gara ikusten. Gazte dezenteren bizierak kezkatzen gaitu batipat, hain hondatua eta errealitateetik hain urruti. Ez al da hau askatasunik gabeko «askapena»? Hainbeste gauzaren morroi direnek nola egin dezakete etorkizun librea? Gaurko gizakiak ez ote du «libreago egingo duen egia»<sup>34</sup> ezagutu behar?

- **Itxaropen-krisia**

**24.** Gaurko biziunearen adierazgarririk ilunena, agian, itxaropen-krisia da. Azken urteotako historiak ederki desmitifikatu du zibilizazio modernoaren oinarria den aurrerapenaren mitoa. Promesa ikusgarri haiek ez dira bete. Ongi-izatea sortu dugu, baina baita marjinazioa ere, langabezia, bakardadea, masifikazioa, norberekoikeria, desberdinkeria. Bizitza luzeagoa egin dugu, baina mamigabeko eta axalekoagoa. Uste hau ari da pixkanaka zabaltzen: gaurko gizon-emakumeek ez dutela asmatzen, bizia ulertu eta zoriona bilatzen. Kultura modernoaren krisia, neurri handi batean, zerumugarik gabe gelditzen ari den gizartearen krisia da, gizadiarentzako etorkizun hobea bilatu nahian helmugarik eta erreferentzi punturik gabe gelditzen ari den gizartearen krisia. Non aurkitu gizaki hobe baten alde lanean jarraitzeko indarra, sentidua eta zerumuga? Nola berreskuratu gizakiak beharrezkoa duen itxaropena betiko eta erabateko salbamenean? Gaurko gizon-emakumeek behar dutena ez ote da, «bizia izan dezaten eta ugari izan dezaten»<sup>35</sup> etorria den Jesukristorekin topo egitea?

- **Zer egin erruarekin?**

**25.** Gaurko gizakiak ere ezagutzen du erruaren esperientzia, baina ez daki berearekin zer egin. Ahal dela, bere bekatua ahaztera jotzen du, gaitz guztiak gizarteari egotziz edo inguruko jokoera zuzengabeari. Nolahala librea izan nahi du, baina ez dio bere erantzukizunari heldu nahi. Baina, hori da engainaturik bizitzeko erarik onena, norberaren egiatik aldendurik, barne-berritzeko ahalmenik gabe. Gizakiak behar duena ez ote da bere bekatua aitortzea, bere burua barkatua sentitzea, bere erru eta miseriekin onartua izatea eta berriro ere bere jatorrasuneraren etortzea? Behar duena ez ote da Jainkoaren barkazioa eta Ebanjelioko mezu hura ezagutzea: «barkatzen zaizkizu bekatuak»<sup>36</sup>.

- **Bizitza hau besterik ez?**

**26.** Gaurko gizakiak ez du geroko bizitzan pentsatu nahi. Nahiago du bere oraingo une zehatzean bizi, mundu hau ahal duen ondoen antolatu, bizitza ho-

---

<sup>34</sup> Ikus Jn 8,32.

<sup>35</sup> Jn 10,10.

<sup>36</sup> Mk 2,9.

netaz ahal den gehien gozatu eta beste planteaketak ahaztu. Eta hala ere badaki, ezin duela alhora utzi gizakiok geure barruan daramagun galderarik larriena: zer gertatuko zaigu gero bakoitzari eta denoi? Zer bukaera daukagu zain? Heriotzaren aurrean azaltzen da, heriotzarekin zer egin ez dakien zibilizazio honen «egia», heriotza ahaztu besterik ez baitaki egiten, haren erronka ezkutatzeko. Luze, ongi eta zoriontsu bizi nahi duen gizaki honek, baina zahartzaroari eta heriotzari beldurra dien gizaki honek behar duena ez ote da «betiko biziaren hitzak»<sup>37</sup> entzutea? Behar duena ez ote da Jesukristoren agintzari hura entzutea: «Ni naiz biztuera eta bizia; Niregan sinesten duena, hilik ere biziko da»<sup>38</sup>.

---

<sup>37</sup> Jn 6,68.

<sup>38</sup> Jn 11,25.



## II.- EBANJELIZATZERA BERRIRO DEITUAK

**27.** Behin baino gehiagotan gonbidatu izan zaituztegu gure garai hau «grazi eta deialdi-garaia» bezala bizitzera. Duela zenbait urte esaten genizuen, aldi honetako erlijio-krisialdiak fedearikiko gure hutsuneak eta koherentzia-eza ikusten laguntzen zigula, eta Jesukristori nola jarraitzen diogun aztertzeraz eta Ebanjelioarekiko gure leialtasuna zorrozteraz eragiten zigula<sup>39</sup>. Gure garai hau «ebanjelizatzeako ordu» bezala bizitzera gonbidatu nahi zaituztegu gaur.

### Erantzun onartezinak

Badakigu sinestedun asko zaretela, apaiz, erlijioso eta sekular, leial eta iraupenez lanean ari zaretenak, aldi gogor hauei ihes egin gabe, eta gaurko gizakiari Ebanjelioa ematen ahaleginak egiten dituzuenak. Badakigu eginahalak egiten ari zaretela parrokia eta elkarteetako bizitza eraberritzearren eta pastoral ekintza indartzearen. Batzutan oraindik bilaketa-lana ari duzue, baina horretan ikusten da Eliza gero eta kezkatuagoa dagoela Ebanjelioa hots egin beharraz. Hala ere, batzuek, gaurko giroagatik zorabiatuak, aldi joanei begiratzen diete, orduan dena argiago eta seguruago baitzen. Beste batzuek, berriz, mundua fedearen aurrean arduragabe edota, zenbaitetan, fedearen kontra ikusirik, defentsa-jarrerak hartzen dute. Baina ez al dugu entzun behar, «munduaren argi» eta «lurraren gatz»<sup>40</sup> izateko eskatu zigun Haren dei sakon eta lehiatsuagoa?

Garai batean fedearak zuen entzulegoa eta ospea berreskuratu nahirik, gaurko munduaren irizpideetara makurtarazi nahi du zenbaitek fedea. Ebanjelioaren mezua gaur egun onargarriago gertatzen diren ideologietara egokitzeko arriskua du horrek, eta salbamena eta kristau itxaropena helburu historiko zehatzak iristera murrizteko arriskua. Ez al da hori, ordea, hain zuzen gaurko gizakiak behar duen «gatza gezatzea» eta «argia ezkutatzea»<sup>41</sup>.

Sinesgabezia gero eta handiagoa izango dela eta Jainkoaren Eliza gure gizartean desagertaraziko duela pentsatuz lur joa dago zenbait. Beste batzuk beren jarreretan setatzen dira, beren jokaerak aztertu gabe eta garai berriek esan nahi eta eskatzen dutena zuzen ulertzen saiatu gabe. Beste batzuk, berriz, etsipenak eraginiko saiakerak egiten hasten dira, Ebanjelioaren hitza desitxuratuz, Elizaren batasuna ahulduz eta ebantajelizatzeako eragozpenak areagotuz. Ez al da indarrak bateratzeko eta ebantajelizatzeako deia elkarrekin entzuteko unea, jakinik Jauna geurekin dugula egunero munduaren azken egunera arte?<sup>42</sup>

### Ebanjelizatzeako ordua

**28.** Joan Paulo II. arekin esan nahi dizuegu: «Jainkoaren ordua dugula oraingo hau, hots egiten ez duen itxaropenaren ordua. Zuen eliz elkarten barne-bizitza

---

<sup>39</sup> Ikus *Fededun izan federik ezak jotako egunotan* gure Pastoral Idazkia (1988, Gari-zuma-Pazkoa).

<sup>40</sup> Mt 5,13-14.

<sup>41</sup> Ibid.

<sup>42</sup> Ikus Mt 28,20.

eraberritzeko ordua da, zuen gizartean ekintza pastoral eta ebanjelizatzaile ke-mentsuari ekiteko ordua»<sup>43</sup>. Ez gaitu baikortasun arinak zorabiatu behar, ezta etsipen ezkorrak itsutu behar ere. Jainkoaren grazia eta maitasuna etengabe ari da lanean gizon-emakumeen baitan, bihozberritze eta salbamenerako bidea prestatuz. Gaurko gizakiarengan ere ikus ditzakegu, Jesukristoren Ebanjelioaren indar salbatzailea onartzeko prestatzen duten jarrera eta gogo jator eta baliotsuak.

Aurren-aurrenik, gaurko kulturaren interesa aurkitu eta egoki balioztatzera gonbidatzen zaituztegu, gizakia eta beraren pertsona-duintasuna defendatzeko interesa; izan ere, historiak eta gizarteko elkarbizitzak balio nagusi horretara jo behar du, gizakiaren duintasuna ezagutzera, alegia. Historian barna gertatzen diren okertzeek ez gaituzte asmo nagusi horretatik aldendu behar. Gaur egungo kulturak, hain zuzen, horretxegatik du Jainkoa zokoratzen edota aintzakoztat ez hartzen, gizakiaren kontra dagoela iruditzen zaion guztia baztertzen duelako. Gaurko kulturak gizakia horrela goraiatzea ez dator bat kristauak pertsonaren duintasun eta balioa ikusteko duen moduarekin, pertsona Jainkoaren irudi dela ikusten baitu kristauak. Hala ere, gizakiaz eta berari dagokionaz dagoen arreta horrek bidea ematen dio Jainkoa Berri On bezala hots egin ahal izateari, baldin eta gizakiaren Adiskiderik hoberena dela eta gizakia beraren betera daramana dela hots egiten bada.

Sekularizazioa bera, munduak eta lur honetako errealitateek zilegi duten autonomia gisa ulerturik, «Ebanjelioaren prestakuntzat» har daiteke. Giro horretan Jainkoaren misterioari buruz dugun sinesmena argiago aitortu eta hots egin dezakegu, eta horretara eragiten digu, Jainkoak dena dohainik eskaintzen digula eta gizon-emakume guztiekiko maitasunak eraginiko asmoa duela adieraziz. Horrela, ez da nahasiko gaizki uler daitezkeen beste interes batzuekin, irabazpide eta erabilpide-kutsua duten beste interesekin, alegia. Gaur egungo krisialdiak Jainkoari buruzko sinesmena eta iragarpena garbiago eta zinezkoago egitera bultzatzen gaitu.

Poza ematen du, orobat, askatasunaren duintasun eta balioari gaur egun nolako garrantzia ematen zaion ikusteak, giza izatearen berezko ezaugarria baita askatasuna. Horretan «Hitzaren hazia» ikusi behar dugu. Giro horretan, Jesukristoren Ebanjelioa giza nahimena sendatzen duen askatasun-indarra dela ager dezakegu eta, gainera, Ebanjelioak giza izatea eta bizitza egiaz aske eta askatzaile izateko eran eramaten laguntzen duela.

Gaurko gizartean aurki ditzakegu «Jainkoaren Erreinuaren beste ernamuin» batzuk ere: zuzentasun, berdintasun eta senidetasun nahia; historia irekia eta aurrera begira ikustea, emakumearen duintasun osoa ezagutzea, era guztietako gerra eta gogorkeriak baztertu nahia; izadiarekiko begirunea. Oso estimatu eta onetsiak ditu balio horiek guztiak gaurko gizakiak. Eta kristau fedearekin zeharo bat datozenez, kristau agerpenaren eta Jainkoak Kristorengan eskaintzen digun grazia salbatzailearen oparotasuna berriro ikusteko bide izan daitezke. Joan Paulo Mak dioen bezala, guk ere ikusten dugu «Ebanjelioa ereiteko prestatuagoa dagoen gizadia eskaintzen ari zaiola Jainkoa Elizari... Jesusek bizi izan zituen balio ebanjelikoak herriengan sendotzen ari direnez»<sup>44</sup>.

---

<sup>43</sup> Gotzainei hitzaldia Espainiako Gotzain-Batzarraren egoitzan (1993-VI-15), 2. z.

<sup>44</sup> Joan Paulo II.a, *Redemptoris missio* Aholku-idazki apostolikoa, 3. z.

## **Premiazko hiru helburu**

**29.** Gogoeta horien argitan galdetu beharra dugu, ez ote garen, ahalegin ugari egin den arren, gehiegi atzeratzen ari gaur egungo egoeraren erronka arretaz aztertzea, eta gaurko gizon-emakumeen ebanjelizatzeak eskatzen dituen aldaketak egitea. Gure elizbarrutietan hiru helburu garrantzitsu ditu ebanjelizatzeoko deiak: Elizak berez eta nagusiki ebanjelizatzaile izan behar duela berriro ikustea; ebanjelizatzea sinestedun guztien lana dela ulertu eta lan hori zuzpertztea; ebanjelizatzaile izango den pastoraltza bultzatzea.

### **• *Eliza berez eta nagusiki ebanjelizatzaile***

**30.** Ebanjelizatu beharra dagoenik gure artean sumatu gabe hainbeste urte joan ondoren, ahaztuxea genuen zerbait gogoratu eta sakonduarazi behar digu oraingo erlijio-krisialdiak: Elizak berezko eginkizuna duela ebanjelizatzea. Egia esan, gure elizbarrutietan beti indartsu sumatu izan da «misio-lurraldeetan» egin ohi zen ebanjelizatze-lanean parte hartzeko deia. Baina ez gara erraz ohartu, hemen ere Elizaren berezko izatea eta egitekoa Ebanjelioa hots egitea dela.

Halaxe da, ba. Ez dugu uste izan behar gure herria ebanjelizatu dagoenik, gure Elizak osatuak eta erabat eginak daudenik, eta Jesukristorengan sinetsiz bizi garenik sinesmenari eutsiz, eta gero, beste une batean, Eliza hauek Ebanjelioa hots egitera bidaliak direnik. Ez. Ebanjelizatu beharra ez da eranskina. Gure Elizen «izaterik sakonena» da Ebanjelioa hots egin beharra. Horretarako dira Elizak, horretarako diraute. Ebanjelioa hots egiten ez badu, Eliza ez da bere egitekoa betetzen ari. Areago. Zehatz mintzatuz, esan beharra dago ez dela Eliza ebanjelizatzeoko, baizik eta egiteko horrek sortzen eta etengabe sortarazten duela Eliza. Jesukristoren Ebanjelioa etengabe onartu eta bere inguruan eta mundu osoan gartsu hots egitea da Eliza izatea.

Horretaz ohartzeta gauza «berria» gerta daiteke orain gure artean, baina horixe egin behar dugu beste ezer baino lehen. Ebanjelizatzen ez duenean, bere izate sakonenari erantzuten ez diola konturatu den Elizaren dinamismoak eraginik ez bada, gure ekintza pastoralek eta ekitaldiek ez dute indar eta sendotasun handirik izango. Kontua ez da, beraz, garai batean gizartean zuen ospea edota galdutako itzala berreskuratzea, Elizaren muina eta ardatza den ebanjelizatze-eginkizuna berreskuratzea baizik. Honetaz ohartarazi behar ditugu geure kristau elkarteak: Elizbarrutietako elkarten muina hondatu nahi ez badugu, ezin diogula Jesukristo gaurko gizartera eramateari eta Jainkoaren Erreinuko balioak egia bihurtzen saiatzeari utzi.

### **• *Ebanjelizatzea, sinestedun guztien langintza***

**31.** Sinestedun guztiek dute Ebanjelioa hutsegiteko erantzukizuna. Ebanjelioa hots egiteko da kristau guztien elkartea. Denok hartu dugu Ebanjelioaren dohaina; baita berori hots egiteko erantzukizuna ere. Eta lan honetan ezin du inork inor ordezkatu. Horrek ez du esan nahi denok lana era berean egin behar dugunik; bai, ordea, denok gaudela, nor bere bokazioaren eta zerbitzuaren arabera, gizartean Jesusen testigu eta Jainkoaren Erreinuaren legami edo orantza

izatera deituak. Ezin da ebanjelizatze berriaren zama osoa apaizen eta erlijio-soen bizkarrera bota.

Ebanjelizatzea Jainkoaren Herri osoak egin behar duela eta ebanjelizatzerak deituak denok gaudela esatea, eta horretaz konturatzea, garrantzi handiko berria izango litzateke gure artean. Aitortu beharra dugu, kristau askok, baita elizkoi direnek ere, besteei ezer esan behar dietenik sumatu ere egin gabe bizi dutela beren sinesmena. Onartzen dute Jainkoak agertu eta Elizak irakasten duen doktrina, saiatzen dira kristauari dagokionez bizitzen, baina ez dira ohartzen kristaua, kristau delako, Jesukristok bidalia dela, apostolua dela, ebanjelizatzailea.

Pastoral bide luzea egin beharrean gara, kristau guztiek ikus dezaten ebanjelizatzea fedearen ondorioz datorkien nolabaiteko betebeharra ezezik, Jesukristorengan sinesteak Beraren salbamena hitzez eta bizitzaz hots egiteko testigu egiten dituela. Beraz, kristau guztiak horretaz ohartzea ezinbestekoa da, ebanjelizatze berria ongi oinarritu nahi badugu. Horra hor, geure parrokia eta kristau elkarten baitan txertatu behar dugun ideia bultzatzailea. Pertsonen, familien, kristau taldeen eta erakundeen kontzientzia eta kemen ebanjelizatzailea esnaraizi behar dugu.

### • ***Pastoraltza ebanjelizatzailea suztatu***

**32.** Soziologikoki kristaua den gizarteak behar dituen kultu eta katekesi zerbitzuak eskaintzeko antolatua da, gehienbat, gure elizbarrutietako pastoraltza. Eta horretan gogotsuago ari da, fedea utzi duen gizartearen erdian misio-langintza bultzatzen baino. Horregatik, euste edo mantentze hutsezko pastoraltzatik pastoraltza ebanjelizatzaileira igarotzea da gure Elizek duten erronkarik handiena eta langintzarik lehiatsuen.

Orain ari dugun mantentze-pastoraltza sinesteduntzat hartzen ditugunei zuzendua da. Halako pastoraltzak, sinestedunei zuzendua denez, ez die pertsonen Jesukristorengana bihurtzera eragiten; beren erlijioa betetzen eta fedearen araberako jokabide moralak bizitzen lagundu nahi die, batipat.

Pastoraltza ebanjelizatzaileak, aldiz, Ebanjelioa hots egitea eta Jesukristorengana bihurtzera dei egitea du bere ahalegin eta ihardun guztien xede eta helburu. Horregatik, pastoraltza ebanjelizatzailea sinestedun ez direnei eta arduragabetei dago zuzendua; baina baita kristau elizkoi izan arren, beren fedea epel eta bizitzan agertu gabe bizi dutenei ere.

Horrelako pastoraltza misiolarian, eliz iharduera guztien erreferentzi puntua eta pastoral ekintza guztien alderdietako bat Ebanjelioa hots egitea da. «Barne bizitzak berak ere –otoitz-bizitzak, Hitza eta Apostoluen irakaspenak entzuteak, senidearteko maitasuna bizitzeak, ogia zatitu eta elkarbanatzeak– ez du egiaz zentzurik, testigantza bihurtzen ez bada, miresmena eta bihotzberritzea pizten ez baditu eta Berri Onaren predikazio eta hots egite gertatzen ez bada»<sup>45</sup>. Geroago mintzatuko gatazka honek guztiak eskatzen duen pastoralberrikuntzaz, sinestedunen fedea bizkortzeko, ebanjelizatze-lanean parte harra-

---

<sup>45</sup> Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki apostolikoa, 15. z.

razteko, Ebanjelioa hots egiteko bide berriak bilatzeko. Orain, ordea, gure pastoral lanean etengabe egin behar genukeen galdera aipatu nahi dizuegu: gure pastoral ekintza hau, katekesia hau, zerbitzu hauek, liturgia hau, ebanjelizatzaile al dira?

### III.- ZER DA EBANJELIZATZEA?

**33.** «Ebanjelizatzeaz» ari gara, baina ez dugu denok argi eta garbi ikusten zer esan nahi duen horrek. Esanahi eta iritzi desberdin samarrak ageri dira gure artean ebanjelizatzeaz mintzatzean. Ezinbestekoa dugu, beraz, gogoeta egitea: Zer esan nahi dugu gure elizetan ebanjelizatzekeo beste ahalegin gartsu bat egin behar dugula esatean?

#### **Lehenbiziko ebanjelizatzailea**

**34.** Berez, «berri on bat hots egitea» da «ebanjelizatzea». Baina kristauontzat, gainera, beste hau esan nahi du hitz honek: Jesusek gizon-emakumeei hots egin zien Berri Ona gaur hots egitea eta sinesgarri egitea, alegia. Horregatik, ebanjelizatzea zer den jakiteko, Jesusen jokaerari begiratzea da onena, Haren bizitza osoa Ebanjelioa hots egitea izan baitzen. «Jesus bera, Jainkoaren Ebanjelioa, izan da ebanjelizatzaileetan lehenbiziko eta handiena»<sup>46</sup>. Jesus dugu, beraz, ebanjelizatze ororen eredu eta irizpide.

#### • **Jainkoaren Erreinua iragartzea**

**35.** Beste ezer baino lehen, Jainkoaren Erreinua iragarri zuen Jesusek. Hori da nagusiena. «Gainerakoa» gehigarri emango du Jainkoak. Jainkoaren Erreinua da, beraz, Jesusen ebanjelizatze-lanaren muina, iturria eta xede nagusia. Hona hemen Jesusen iharduera eta predikazio osoaren laburbilduma: «Ordua bete da, hurbil da Jaungoikoaren erreinua. Bihotz-berri zaitezte eta sinets berri ona»<sup>47</sup>. Zer esan nahi du honek?

Jainkoak gizon-emakumeei egiten dien Salbamen-dohain handia iragartzea da ekintza osoaren ardatza. Gizadiak duen bizi-nahia, zuzentasun, askatasun eta zorientasun-nahia egia bihurtuko da. Hauxe da Berri Ona. Salbatzaile izanez esku hartu nahi du Jainkoak giza historian.

#### • **Jainkoaren Berri Ona**

**36.** Horra hor munduak entzun dezakeen berririk onena. Izan ere, Jainkoa ez da idoloak bezalakoa, hauek bidegabekeriara, esklabutzara eta heriotzara baitaramate gizakia. Jainkoa bizi-emailea da, gizon eta emakume ororentzat eta bakoitzarentzat salbamina nahi duen Aita da, Berak sortarazi baititu eta seme-alaba ditu.

Jesusen aldarrikapenean eta ihardueran Jainkoaren beste irudi bat ikusi zuen jendeak, eta Jainkoarengana heldu ahal izateko bidea. Ez da antzinako Jainko Lege-emailea. Neurrigabe ona da Jainkoa, «ona da gaiztoekin eta esker txarrekoekin»<sup>48</sup>. Legeak agintzen eta eskatzen duena baino eskuzabalago eskaintzen die Jainkoak gizon-emakumeei bere grazia.

---

<sup>46</sup> Ibid., 7. z.

<sup>47</sup> Mk 1,15.

<sup>48</sup> Lk 6,35.

Halako Jainkoa aldarrikatzeak Beraren asmoaren aurka dagoen guztia salatzen darama Jesus: itxurazalekeria, Legea itxurak egiteko betetzea, otoitza azalez egitea, txikiak gutxiestea, handien gehiegikeria, gorrotoa eta senide-maitasunaren kontra dagoen guztia.

- ***Bihotz-berritzera deia***

**37.** Berri On honek ezin ditu axolagabe utzi gizon-emakumeak. Bihotz-berritzea eskatzen du, bizitza ulertu eta eramateko era zeharo aldatzea. Onartu egin behar dute gizon-emakumeek graziaren Jainko hau, sinetsi Berak betiko bizia hitzematzen digula, eta entzun Beraren eskakizunak. Jainkoa onartzean edota baztertzean dago gizakiaren betiko salbamena edota betiko hondamena. Jainkoa onartzeak Aita den Jainkoaganako maitasun, eta senide den lagunurkoarenganako maitasunaren agindua bizitzea eskatzen du, batez ere.

- ***Hitzez eta egitez***

**38.** Hitzez eta egitez hots egiten du Jesusen Jainkoaren Berri Ona. Paraboletan Jainko barkatzaile eta errukitsuaz mintzatzen da eta, aldi berean, bekatariak bihotz zabalez onartuz eta beharrean daudenei zerbitzu osasun-emaile eta giza-koitzailea eginez, Bera bihurtzen da Jainko horren «parabola bizia».

Jendeak «Jesusen ahotik ateratzen ziren graziako hitzetan»<sup>49</sup> Jainko dohain-emaile eta salbatzailearen berria entzun zezakeelako, eta Jesusen egintzetan «Jaungoikoaren bihotz ona eta gizon-emakumeenganako onginahia»<sup>50</sup> ikus zitzakeelako, ager dezake Jesusek eta erakutsi Jainkoaren misterioa, gizakiak Berri On sinesgarritzat onartzeko eran.

- ***Ebanjelizatzen duen biziera***

**39.** Bere hitzez eta ihardueraz, Jesus, Jainkoaren Ebanjelioaren hotsegile ezezik, Bera gertatzen da «Ebanjelioa», zeren eta Berarengan eta Beraren bitartez egia bihurtzen baita gizon-emakumeen artean Jainkoaren salbamena. Beraren bizierari dario grazia, Beraren bizierak du Jainkoa Berri Ontzat eskaintzeko eta ezagutarazteko indarra.

Nondik datorkio indar hori? Ebanjelariak honako ezaugarri hauek aipatzen dituzte: gizon-emakume guztien Aita den Jainkoarekiko esperientzia sakona; beharrean zegoen orori neurrigabeko zerbitzua eskaintzea; bekatariak bihotz samurrez hartzea eta barkamena dohainik ematea; beti on dena egiteko erabat aske izatea; gizakia salbatzea beste helbururik ez zuen errukia eskaintzea; giza bizitzan egizaletasuna sartzea; itxaropena emateko zuen ahalmena; Jainkoaren Erreinuarekiko leialtasuna, bere buruaz ahaztu eta heriotzara emate-raino.

---

<sup>49</sup> Lk 4,22.

<sup>50</sup> Tt 3,4.

- ***Behartsuei Berri Ona hots egiten zaie***

**40.** Jesusen bizitza osoa gertatzen da Jainkoaren Berri Ona, baina bada Jesusen ihardueran esanahi berezia duen ezaugarria: Jainkoaren Berri Ona Jesusek «behartsuei» eskaintzen diela gehienbat. Behartsuek ikusi behar dute, beste inork baino lehen, egia dela Jesusek dioena. Ez dira besteak baino hobeak, eta ez dute besteak baino meritu handiagorik. Baina horiek dira gehien sufritzen dutenak, Jainkoaren Erreinua ezarri gabe dagoelako: bekatariak; indartsuen zuzengabekeria eta norberekoikeriagatik behartsu gertatzen direnak; osasunik ez dutenak; bizitzak zigortu dituenak. Jainkoa denen Aita dela hots egiteko eta Beraren zuzentasuna gizon-emakumeen artean ezartzeko, justizia egin beharra dago inork egiten ez dien halakoei. Egiazko Jainkoa iragartzen denean, «behartsuei Berri Ona hots egiten zaie»<sup>51</sup>.

- ***Sakabanatuak bildu***

**41.** Aita bakarraren seme-alabak bildu nahiak eragiten eta eusten dio Jesusen ekintza ebanjelizatzaileari. Baztertuengana hurbilduz, bekatariekin otorduak eginez, kutsatuak onartuz, ikasle-taldea eratuz, Jesusek bildu egin nahi ditu sakabanatuak, elkarrengandik aldeniak adiskidetu eta denak senitarte izango den herri bakarrean elkartu, «Israel berria» egiteko, Jainkoaren Erreinuaren seinale izan dadin lurrean.

- ***Jesus, Jainkoaren Ebanjelio egina***

**42.** Jainkoaren Ebanjelioa ekarri duen eta horrexegatik gurutzean hil duten Jesus behin betiko Berri On gertatu da gizadiarentzat, Aitak Jainkoaren bizi bera biztuarazi duenean. Horrela, Salbatzaile egina da betiko, Jainkoaren Ebanjelio gizon-emakumeentzat. Horregatik esan daiteke «salbamenaren Berri Ona hots egitea dela ebanjelizatzea, Jainkoaren Ebanjelio den Jesukristo iragar-tzea»<sup>52</sup>.

## **Ebanjelizatzeo ibilbidea**

**43.** Jesusen ebanjelizatze-ibilbideari leial jarraitu nahi badiogu, ez dugu ebanjelizatze-lana era zatikatu edo alderdikoian ulertu behar. «Ebanjelizatzeak berea duen errealitate oparo, handi eta dinamikoa ez luke inola adieraziko definizio ez oso eta zatikakoak, ebanjelizatzea bera murriztu eta motz utzi gabe»<sup>53</sup>. Horrela, bada, Jesus bera erreferentzia harturik eta *Evangelii nuntiandi* aholku-idazkiaren harian, ebanjelizatze-ibilbidearen elementurik nagusienak oroitarazi nahi dizkizuegu.

---

<sup>51</sup> Mt 11,5; Lk 4,18.

<sup>52</sup> Joan Paulo II.a, Brasilgo erlijiosoan XV. Batzarra Osoari idatzitako Gutuna (1989-VII-11), 3. or.

<sup>53</sup> Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki apostolikoa, 17. z.



- **Agerian hots egin beharrekoa**

**44.** Esan dezagun, lehenbizi, ez dagoela erabateko ebanjelizaziorik, Jainkoaren Erreinua agerian hots egin ezik. Ebanjelizatzea ez da mutua. Ezin da testigantza isilera edota mundua aldatzeko konpromezu isilera murriztu. «Ebanjelizatzeak beharrezkoa du beti –bere indarraren oinarri, ardatz eta, aldi berean, gailurtzat– argi eta garbi hots egitea, Jainkoaren Seme gizon egina, hila eta biztua den Jesukristorengan eskaintzen diela Jainkoak salbamera gizon-emakume guztiei, Jainkoaren grazia eta errukiaren dohaintzat»<sup>54</sup>.

Ebanjelizatze-lanaren onerako berreskuratu egin behar dugu salbameraren ageriko dei hori bere oparotasunean, baita Jainkoaren Hitzak duen indar salbatzailea ere, gizon-emakumeen askakuntzarako dohaina dela iragarritz. Horrela hots egin gabe, gure ebanjelizatze-lana bukatu gabe geldituko litzateke, eta Kristoren Hitzak duen grazia gabe utziko genituzke gizon-emakumeak. Gurea bezalako gizartean beren esanahi osoa dute San Pauloren hitz haiek: «Nola sine-tsi, Haren entzuterik ez badute? Nola entzun, nor hots eginik ez bada?... Esanetik dator sinestea; esangaia, berriz, Kristoren hitza da»<sup>55</sup>.

- **Testigantza bizi**

**45.** Esan dezagun, luzatu gabe, testigantzatik sortu behar duela ebanjelizatze-deiak, testigantza baita «ebanjelizatzearen ezinbesteko elementua eta, nagusiki, lehenbizikoa»<sup>56</sup>. Hitz hutsetan gelditutako ebanjelizatzea nekez izan daiteke Jainko biziaren Berri Ona hots egitea. Jesukristori, Beraren ezaugarri nagusietan, leial jarraitzearen testigantza «berez, Berri Onaren hots egite isila, baina argia eta eraginkorra da jadanik»<sup>57</sup>.

Sinestetik urruti dabilentzat bereziki beharrezko da sinesmena pozkarioz eta erantzukizunez bizi duten sinestedunen testigantza. Halakoentzat zeinurik ulergarrienak ez dira sakramentuak; mintzairarik ulergarriena ez da mintzaira erlijiosoa. Giza bizitza duin, askatu, konprometitu eta itxaropentsuaren mintzaira eta zeinuak bai uler ditzaketela beste ezer baino lehen. Horregatik du testigantzak halako indar ebanjelizatzailea: dena kontra duenean eta gizarteak arbuatzen duenean, Jesukristorekiko leial bizitzeak; azken direnen zerbitzurako osorik eta dohain emana bizitzeak; Kristori erabat jarraitzeak, erlijioso eta erlijiosoek beren bizitzan egin ohi duten bezala; bizitza kontenplalarirako sagaratu egoteak; Jainkoaren Erreinuagatik zelibe izateak, atseginzale den gizartearen erdian.

- **Konpromezu eraldatzailea**

**46.** Badu ebanjelizatzeak nahitaezko beste elementu bat. «Berri Ona gizadiko ingurugiro guztietara eramatea eta, beraren eraginez, gizadia barrenik eralda-

---

<sup>54</sup> Ibid., 27. z.

<sup>55</sup> Erm 10,14. 17.

<sup>56</sup> Paulok VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki apostolikoa, 21. z.

<sup>57</sup> Ibid., 21. z.

tzea eta eraberritzea, hori da ebanjelizatzea»<sup>58</sup>. Jainkoaren Erreinua indartu asmoz gizartea aldatzeko konpromezua ez da ebanjelizatzearen eskakizun etiko hutsa, ezta aldakuntzaren bidez salbamenaren onartzeko prestaketa hutsa ere. Ebanjelizatzeari berari dagokio, oraintxedanik historiaren muga eta baldintzen barnean onartu eta aurreratzen saiatzea, azkenean dena betetzean izango dela iragartzen eta itxaroten dena: Jainkoaren Erreinua, alegia, maitasun, zuzentasun eta senidetasun-erreinua.

Gure gizartean ezin da egiazko ebanjelizatzea egin, Jainkoaren Erreinuako zuzentasuna hots egin eta beraren alde lan egin gabe. Erlijioarekiko axolagabekeriak ezezik, era guztietako zuzengabekeriak ere bazterketak, indarkeriak, giza duintasunaren kontrako atentatu guztiek ilundu eta ezkutatu egiten dute Jainkoaren aurpegia. Jainkoak betiko bizirako eskaintzen duen Berri Ona ezin da era sinesgarrian hots egin, Berri On horren salbamen-indarra bizitza honetako egoera mugatu eta aldakorrean ere nolabait ikusten ez bada. Behartsuak ebanjelizatu gabe dauden tokian ez dago Erreinua egia bihurtzen ari denaren seinalerik.

- ***Jainko biziarengana itzularazi***

**47.** Jainkoaren Berri Ona bihotzez onartzera eragiten duenean betetzen du ebanjelizatzeak indar osoz bere helburua. Horixe da, izan ere, ebanjelizatzearen lehenbiziko helburu nagusia: Jesukristorengan agertua den Jainkoarengana itzularaztea eta onartu den Ebanjelioa bizitzeko era bihurtzea. «Hitz batean, Ebanjelioak hasten duen erreinua onartzea, hots, “mundu berria”, egoera berria, izaera berria, elkarrekin bizitzeko era berria, onartzea»<sup>59</sup>.

Ezin dugu isilik gorde Jainkoarengana nor bera itzultzearen lehentasuna. Lehenbiziko xede edo helburua ez da Ebanjelioaren eraginkortasun tenporala lortzea, gutxiago oraindik kristautasunaren eragin soziala zabaltzea; baizik eta sinesmena ernaraztea. Baina ez dago egiazko sinesmenik, Jainkoarengana itzultzea» deitzen diogun hasierako esperientziarik gabe. Bihotz-berritze erlijiosoa, alegia, eta ez morala bakarrik; Jainko biziarekin topo egitea, eta ez jokabideak aldatze hutsa; bizitzari norabide berri bat ematea Jesukristogandik, eta ez damua bakarrik.

- ***Elkartean sartzea***

**48.** Berri Ona onartzea «ezin da airean eta abstraktuan utzi; fededunen elkartean agerian sartuz adierazten da»<sup>60</sup> onarpen hori. Ebanjelioa onartzea, nork berak Jesukristoren mezua onartzea eta nork bere aldetik Jainkoaren Erreinua eta Beraren nahia betetzea ezezik, Jesusek bildua eta bere biztueraz sortua duen bihozberrituen elkartean sartzea da: Elizaren baitan sartzea.

Ezin dugu, beraz, ahaztu, Ebanjeliora itzuli direnen senide-elkartea eraiki nahi duela ebanjelizatzeak. Ezin da elizkide izatera inor behartu; kristau elkar-

---

<sup>58</sup> Ibid., 18. z.

<sup>59</sup> Ibid., 23. z.

<sup>60</sup> Ibid.

tea dohain bezala eskaini behar da; izan ere, «bizitza eraldatu dutenak elkartean sartzen dira, aldaketaren ezaugarri, biziera berriaren ezaugarri den elkartean: Eliza, salbamenaren ezaugarri ikuskor baita»<sup>61</sup>.

«Eliza berez den seinalea luzatzen eta garatzen duten beste seinale asko eginez»<sup>62</sup> adierazten da norbait eliz elkartean sartu dela. «Jainkoarekin bat eginak gaudenaren eta gizadi osoaren batasunaren seinale eta bide den»<sup>63</sup> elkarte honetan sartuak egotea eta elkarrekin harremanak izatea, sakramentuen bidez sendotzen da. Sakramentuek fedea aurrez eskatu ezezik, janaritu, indartu eta adierazi egiten dute.

## **Gaizki-ulertzeak saihestu**

**49.** Egoera egokiagoan egon gaitezke orain ebanjelizatzeari buruzko gaizki-ulertzeak eta iritzi okerrak argitzeko.

### **• *Ohiturakeria pastoraltzan***

Gainditu beharra dugu ebanjelizatzea era erosoan ulertzeko joera. Ez da aski hizkera aldatzea eta lana beti bezalatsu egitea, egiten dugun guztia egiaz ebanjelizatze-pastoraltza dela pentsatuz.

Baina hizkera berri eta erakargarria erabili arren gure ekintza Jesusen ebanjelizatze-lanarekin ez alderatzea, Jauna egiten ari zaigun deiari ihes egitea izango litzateke. Gure pastoral lan guztiak ez dira ebanjelizatze-lana. Ebanjelizatzearen eskakizunei erantzun nahi badiegu, hasiera-hasieran izan zuen ulerkera geureganatzen saiatu behar dugu, gure garai hauetarako zer berri duen eta zein eskakizun duen zinez onartuz.

### **• *Atzera begiratzea***

**50.** Ebanjelizatzea garai batean egin izan zen bezala berriro egin behar dela dioen iritzia ere alde batera utzi behar da. Jainkoaren Erreinua gure gizartean zabal dadin nahi izatea, eta sinesmena gaurko belaunaldietan ere heda dadin nahi izatea ez da, inola ere, Elizarentzat garai batean zituen aginte-maila eta eragin sozio-politikoa berreskuratu nahi izatea, berea ez duen eginkizuna bete dezan. Jesusek hots egiten duen Jainkoaren Erreinua ez da indarrez ezartzen, ezta gizartean izen handia lortuz ere, Jesus Jainkoaren salbamina eskaintzera bidali zuen Espirituaren kemenez baizik, gizon-emakume guztiei zerbitzu eginez.

Ebanjelizatzeoko deiak, Elizaren garai bateko izen handia eta aginte politikoa berreskuratzeko eran ulerturik, poza ematen die batzuei, horrela gizarte-ordena bermatua, garantizatua, ikusten baitute; beste batzuei, aldiz, ikara ematen die, beldur baitira ez ote den galduko Vatikanoko II. Kontzilioaren ondarea

---

<sup>61</sup> Ibid.

<sup>62</sup> Ibid.

<sup>63</sup> *Lumen gentium*, 1. z.

eta berorrek, kulturaren eta gizarteko erakundeen autonomia aitortuz, ekarri zuen garbikuntza erlijioso.

Nola batzuei hala besteei honako hau esan nahi genieke argi eta garbi: Ebanjelizatzearen pastoraltza garatzeko egiten ari garen deia Elizaren tradizio-rik onenaren harian doala. Tradizio horretakoa da, zalantzarik gabe, Vatikanoko II. Kontzilioa bere dokumentu doktrinal eta pastorekin. «Besteen zerbitzuak hartzera ez, besteak zerbitzatzera baizik»<sup>64</sup> etorri zen Haren argira egina izan behar du gure elizbarrutietan bultzatu nahi dugun ebanjelizatzeak. Eta, Kontzilioaren espirituaren arabera, munduari eta «gizon-emakumeak gehien kezkatzen eta larritzen dituzten behar eta arazoei»<sup>65</sup> begira eskainitako zerbitzua izan behar du.

### • ***Bizitza honetarako egitasmoa***

**51.** Tentagarri da zenbaitentzat, ebanjelizatze-lana bizitza honetarako egitasmo hutsa bihurtzea: «beraren helburuak giza ikuspegi soilera murriztea; ebanjelizatzeak iragartzen eta irudikatzen duen salbamena ongi-izate material bihurtzea; ebanjelizatze-ekintza –alderdi espiritual eta erlijiosoak ahaztuz– politiko nahiz sozial mailako ekintzetara mugatzea»<sup>66</sup>.

Baina gehienbat politiko, sozial nahiz kultural mailetara zuzendutako ebanjelizatzeak, gizakiaren misterioa bigarren mailan utzi eta gizakiari Absolutuarengana, Jainkoarengana, irekitzen lagunduko ez liokeen ebanjelizatzeak galdua izango luke bere jatortasunik sakonena eta bere helbururik zehatzena.

Jesusen ekintza ez da bizitza honetarako egitasmoa betetzea, ezta gizarteko arazoen salaketa edota ekintza filantropiakoa ere. Jainkoa gizakiarentzat Maitasun neurrigabea dela ikustetik datoz Jesusen hitzak eta egintzak, eta gizon-emakumeak Aitarengana gidatzea dute helburu, Jainkoak gizakiarentzat nahi duen senitarte eta zuzenbidea oraindanik egia bihurtzen saiatuz.

### • ***Iragarpen doktrinal hutsa***

**52.** Ebanjelizatzeaz izan dezakegun ikuspegi doktrinalegia ere gainditu beharrekoa dugu. Ezin da pentsatu, ebanjelizatzea Jesukristoren doktrina ez dakitenei edota behar den heinean ez dakitenei irakaste hutsa denik. Egia da, bai, mintzatzea, predikatzea, mezua hitzez ematea eskatzen duela ebanjelizatzeak. Ebanjelioa, hala ere, ez da gehienbat doktrina hutsa. Jesukristoren pertsona bera da, Berarengan Jainkoak eskaintzen digun salbamena, Berarengandik datorrigun indar salbatzaile, sendatzaile eta eraldatzailea.

Jesukristo aldarrikatzea eta Beraren Ebanjelioan dagoen indar salbatzailea gizon-emakumeen bizitzan, gizartean eta giza historian egia bihurtzen saiatzea da ebanjelizatzea. Horregatik, garrantzi handikoa da sakramentu-ezaugarriak zaintzea, beraietan eskaintzen baitigu Jainkoak bere grazia era eraginkorrean. Eta horrexegatik da oso garrantzitsua Jainkoak gizakiari dion maitasun neurri-

---

<sup>64</sup> Mk 10,45.

<sup>65</sup> *Christus Dominus*, 13. z.

<sup>66</sup> Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki apostolikoa, 32. z.

gabea agertuko duten seinale eraginkorrak ematea ere. Interes politiko eta ekonomiko ororen gaintik pertsonaren balioa babesten denean, baztertuak elkarbizitza zuzen eta solidarioan berriro hartzeko eginahalak egiten direnean, ahulen eta ahaztuenen alde lan egiten denean, heltzen ari da Jainkoaren Erreinua<sup>67</sup>.

---

<sup>67</sup> Ikus Lk 11,20.

## IV.- HARI NAGUSIAK EBANJELIZATZEKO GAUR EGUN

**53.** Ebanjelizatze gisako pastoraltza berri bat ibilbidean jarri aurretik, ahalegin bat egin behar dugu guztiok hari nagusi batzuk zehazteko; hari nagusi horiek izango dira, hain zuzen, gure ebanjelizatze-ekintza gaur egun norabide egokian jarriko dutenak, eta gure pastoral plangintza eta egitasmoak arnasa berri batez beteko dituztenak. Hemen eskaintzen dizuegu geure gogoeta.

### **Kristau salbamena, berri on**

Krisi eta etsipen-garaiak bizi ditugu. Gaur egungo gizartea etorkizun garbirik gabe geratu da; egiazko itxaropenerako motiborik gabe. Gutxitu egin da –desagertu ere egin dela esango genuke– gizadiarentzat egiaz berri ona izan daitekeen zerbait entzuteko itxaropena bera. Alderantziz, ezinbestekotzat jartzen digute, gauzak diren-direnean hartu beharra eta pragmatiko izan beharra. Ez dago utopiarik eta berri onik.

Galdera bat sortzen da gure barruan: posible ote da gaurko munduan itxarobiderik esnaraztea, Jesukristoren Elizak hots egiten eta egiten duen horretan izan daitekeela «benetan berria eta ona den zerbait»? Fedetik urrunduak dauden gizon eta emakume askorentzat kristautasunak ez dauka inolako berritasunik; gainera, Elizan sartuta egon diren denboraldiko esperientziak ez die, agian, oroitzapen onik ekartzen. Aldi berean, askotan ikusten dugu, gure pastoralgintzak ez duela lortzen, Jesukristoren Ebanjelioa belaunaldi berriei albiste on bezala bizitua izan daitekeen zerbait bezala ematerik. Fededunok galdu egin ote dugu, kristau salbamena gaurko gizakiei Berri On gisa azaltzeko ahalmena? Hau ez da nolanahiko galdera. Oinarrizko galdera dela iruditzen zaigu, gure ebanjelizatze-ekintzari norabide egokia eta eragina eman ahal izateko.

### **• Jainkoaren Berri Ona adieraztea**

**54.** Bere esanahirik sakonenean Berri Ona zera da: esperientzia txarren artean eta, agian, zalantza eta etsipenen artean, gizakiari itxaropen berria dakarkion zerbait. Gizakiaren barrunberik barrukoena ukitzen du; argia, zentzua eta norabide berria ematen dizkio haren bizitzari; duintasuna eta askatasuna sortzen ditu; elkertasun eta senidetasun-borondatea esnarazten ditu. Berri onak poza eta esker ona sortzen ditu, nahiz eta ukapena, nekea eta bihotz-berritzea eskatu.

Lehenengo eta behin, konturatu egin behar dugu, ebanjelizatzea ez dela egia bat aldarrikatze hutsa, edota doktrina bat eskaintze hutsa; berri on bezala hartua izango den zerbait jakinaraztea da. «Ebanjelizatzeak Berri Ona hots egitea esan nahi du. Eta kristauak munduari hots egiten dion Berri Ona zera da: Jainkoa, gure Jaun bakarra, errukitsua dela bere izaki guztiekin, Berak neurri-gabeko maitasunez maite duela gizakia, eta bere Seme Jesukristoren bidez –gu bekatutik eta bekatuaren ondorio guztietatik askatzeko, eta jainkozko bere bizian guri parte emateko, gugatik hil eta bizitu den bere Semearen bidez– pertsonalki parte hartu nahi izan duela gizakiaren historian<sup>68</sup>.

---

<sup>68</sup> Joan Paulo II.a, Ebanjelizatzearen V. Mendeurreneko Mintzaldia (Veracruz, 1990.go maiatza).

Baina ez dira gauza berdina, gizakiarentzat zerbait ona izango duen doktrina aldarrikatzea, eta gaurko gizakiak aldarrikapen hori Berri On gisa hartu eta bizi ahal dezan egitea. Berri Ona bada, nabarmen azaldu behar du gauza *berri* eta *on* bezala. Galderarik garrantzizkoenaren aurrean gaude, agian, hemen: Nola irits daiteke Jainkoaren misterioa gure gizartean Berri On izatera, egiaz zerbait ona izatera, alegia, gaurko gizon eta emakumeentzat? Zalantzarik gabe, galdera egin behar diegu geure buruei, nolakoa izan behar duen ebanjelizatze *berriak*. Baina, horretarako, ez al dugu beste galdera hau egin behar lehenengo: nola izango den egiaz *ebanjelizatze*, albiste eta berri on?

- ***Jainkoa gizakiaren Adiskide gisa aldarrikatzea***

**55.** Lehenengo eginkizuna Jainkoa gizakiaren Adiskide eta Salbatzaile gisa aldarrikatzea da. Ez da zaila honako hau egiaztatzea: gaur egun Jainkoa, gizaki askoren kontzientzia barruan, Jainko mehatxatzaile eta zorrotza azaltzen dela, askatasuna kendu eta egiazko zoriontasunerako bidea ixten duen Jainkoa.

Gizon-emakume hauentzat Jainkoa ez da Berri On izango, gure aldarrikapenean ez badute jasotzen, jendeak Jesusen predikuan jasotzen zuena: Jainkoa beti gizakiaren aldetik dagoela, eta berau zanpatzen eta menpeko egiten duen gaitz guztien kontra; gure bizia salbatu, askatu, indartu eta goratzeko bakarrik esku hartzen duela Jainkoak gure bizitzan; gizakiarentzat on izango dena bakarrik bilatzen duela eta eskatzen.

Gaur pertsona hauek ebanjelizatzeak zera esan nahi du: beroriei ikusten laguntzea, Jainkoa ez dela gizakia ezereztu nahi duen jauntxo gaiztoa, baizik eta egiazko salbamena eskaintzen dion Adiskidea dela; Kristoren grazia onartzeak bekata uztea eskatzen badu ere, horrek ez duela pertsonaren askatasuna desgaiten; alderantziz, baieztatu egiten duela egiaz askatasuna; Jainkoagana bihotz-berritzeak eskakizun mingarriak baditu ere, eta Kristori leialki jarraitzeak gurutzea onartzea eskatzen badu ere, honekin ez dela pertsona murrizten, baizik eta bizitza beteago eta askeago baterako bidea zabaltzen zaiola; Elizaren mezu moralala, gaur egun gizarte-zati handi batek arbuiatu eta gutxiesten duen mezu moralala, ez dela gizakiaren eta gizakoi den guztiaren gaitzespena, baizik eta egiazko giza duintasunaren, eta beronen bokazioaren eta helmugaren zainketarik sendoena dela.

- ***Jainkoaren Ontasuna egintza bidez erakustea***

**56.** Ez da aski Berri On hau hots egitea. Ahal den neurrian, beharrezko da gauzaturik ikustea. Egia bat errepikatzeak, egia handia bada ere, ez du derrigorrez berori onartzea ekartzen. Jainkoa Berri On denaren egia nolabait adierazten duten «egintza onak» ematen ez badira, aldarrikapen horrek galdu egiten du sinesgarritasuna, batez ere, egia hori entzuten asperturik, Jainkoa horrelakoa izan daitekeenaren gutxieneko egiaztapena bilatzen dutenengan.

Beharrezkoa da gizakiaren Adiskide den Jainko honengan sinetsi, eta Berori aldarrikatzen dutenengan ikusi ahal izatea, Jainkoa onartzeak zerbait ona sortzen duela gizakiarengan: itxaropena, bizitza askea, behartsuekiko zerbitzua,

gizaki guztien ongiaren aldeko lan aspergabea. Jesusen aldarrikapena horregatik zen sinesgarria, jendeak Berarengan «on egiten bizi izan zen»<sup>69</sup> gizon bat ikusten zuelako. Ez dugu ahaztu behar, «egiten zituenak entzunik»<sup>70</sup> biltzen zirela Harengana.

- ***Ebanjelizatzearen esperientzia***

**57.** Honek guztiak esan nahi du, ebanjelizatze-lanean ari diren guztiak sinesurik daudela, Jainkoaren Berri Ona hori dela, Berri On, berauek beren esperientziaz ikusi ahal izan dutelako. Horregatik, «ebanjelizatzailea izanik, Eliza bere burua ebanjelizatzetik hasten da... Elizak beharrezkoa du beti bere burua ebanjelizatzea, Ebanjelioa hots egitekoan bere freskotasun, eragin eta indarrari eutsi nahi badio»<sup>71</sup>.

Aldaketa asko sartzen baditugu ere pastoral lanean eta antolamenduan, gure Elizek ez dute indar ebanjelizatzaile gehiago izango, beraiek ez badute berengan nabaritzen Jainkoaren barkamena bekatari direnez, itxaropenaren esperientzia nekatuak edota bertarakotuak daudenez, eta Ebanjelioaren indarra argalak eta beldurriak direnez. Gure kristau elkarten pastoraltza ebanjelizatzailea Ebanjelioak duen indar salbatzailearen esperientzia izan dutenen esker on eta pozetik sortzen ez bada, zama astuna izango da beti, beharturik egina izango baita, baina bere arrazoi eta arnasa sakonenak galduak izango ditu.

### **Indar ebanjelizatzailearen indarrikapena**

**58.** Hainbat apaiz, erlijioso eta sekularrengan halako etsipen bat nabari dela iruditzen zaigu, aitortzen ez den etsipena, gaurko gizakia eta, batez ere, belaunaldi berriak galduak baleude bezala, erremediorik gabe, Ebanjeliorako eta kristau bizitzarako. Galdu egin dute fedea, kristau mezuaren aldarrikapenak gure egunotan izan dezakeen indarrean. Elizaren hitzak agortuegiak daudela uste dute eta biziberritu ezinak direla. Nola hots egin gaur egun gauza berri gisa, gizarateak zaharkituztat eta gauza jakintzat daukana?

Gure ustea oso bestelakoa da. Gaurko gizakia Jesukristoren aldarrikapen garbi eta agerikoaren beharrean aurkitzen da. Agian inoiz baino gehiago. Gaurko gizaratean nabari den «Jainkoaren isiltasunari» dagokion erantzuna ez daiteke izan Berarengan sinesten dugunon isiltasuna. Nola sinetsiko dute belaunaldi berriek entzun ez duten Harengan? Zertan sinetsiko dute inork prediku egiten ez badie?<sup>72</sup> Eskatzen zaiguna zera da: «Ebanjelizatzeke era on berri bat, salbamenaren betiko mezua gaurko gizakiari era sinesgarrian adierazten jakingo duena»<sup>73</sup>.

---

<sup>69</sup> Ap Eg 10,38.

<sup>70</sup> Mk 3,8.

<sup>71</sup> Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki apostolikoa, 15. z.

<sup>72</sup> Ikus Erm 10,14.

<sup>73</sup> Joan Paulo II.a, Europako Gotzain-Batzarren Buruei eginiko Gutuna (1986-1-2), 6. z.



- ***Fedea esnaraztea helburu duena***

**59.** Kristau aldarrikapenak, batez ere, sinesten ez dutenen fedea esnatzera zuzendua egon behar du gaur egun, edota fede hori biziberritzera, beren bizitzaren eta egiazko eta eguneroko beren konpromezuaren printzipio moldatzailea ez den haiengan. Gure garaiotan fedea ez dago gauza jakintzat ematerik, ez behintzat Jesukristorenganako atxikimendu bizi eta eragile denekotzat. Horregatik, ez dugu bigarren mailako azalpenetan aritu behar. Bestalde, ez du esanahi handirik konpromezuak edota jokabide-aldaketak eskatzeak, hain zuzen, Jainkoarenganako bihotz-berritzea eta Ebanjelioarenganako lehenengo erabaki hori falta direnean. Zainak berritu gabe fruituak eskatzea izango litzateke.

Aldarrikapenak bide askotatik puntu bat-berera iritsi behar du: gizakiaren arazo eta ametsik sakonenak kontzientziara azalduaraztera, isildurik geratzen baitira askotan, baliagarritasunaren kultura, arrazoiaren adierazpenak edota kontsumokeria direla medio. Gaur ere esna daiteke traszendentziaren egarri hori, denik eta axalekoena den bizitzak berak ere ezin baitezake itzali erabat egarri hori; gaur ere berrizta daiteke Jainko biziarenganako harreman pertsonala. Ez dugu ahaztu behar, erlijiorako gaitasuna giza bizitzako funtsezko alderdi bat dela; eta denboraldi luze eta sakon batean axolagabe bizi izan arren, fedea den lekuko den norbaitek esandako egiazko hitz batek izan dezakeela oihartzuna bere garaian.

- ***Oinarrizko erdigunera bildua***

**60.** Kristau mezuaren eta bizitzaren aurkezpenak beti kontuan izan behar baditu ere pertsonaren egoera konkretua eta kasu bakoitzean Ebanjelioa onartzeko egon daitezkeen zailtasunak, aldarrikapena kristau fedea erdigune diren egietara bildu beharra dago: Jainkoa, alegia, gauza guztien Sortzailea eta Aita; Jesukristo, Jainkoaren Seme gizon egina, gure betiko salbamenerako gurutziltzatu eta hila; Eliza, Kristoren gorputz begibistakoa, Espiritu Santuaren arnasez bizi dena; sakramentuak, begibistako ezaugarriak, Kristoren grazia salbatzailea guri emateko; Gure Aita, kristauaren otoitza; Zoriontasunak eta Erreinuko oinarrizko morala.

Fedeak bakoitzarengan, familiarengan edota gizartearengan dituen ondorioak azaltzen ahalegintzeak ez du fruiturik emango, aurretik kristau mezuaren erdimuina eta mamia diren egia xumeak, baina oinarrizkoak, aurkeztu eta onartu gabe. Askok dira gaur egun fedea esnarazteko lehen prediku oinarrizko eta guztiz beharrezko hori entzun beharra daukatenak.

- ***Bila dabilenarenganako ardura***

**61.** Badira gure artean pertsonak ez dakitenak sinesten ote duten ala ez. «Erlijioa», «meza», «bekatua», «aginduak» eta antzeko hitzek lehenaldian galdurik dagoen mundu bat dakarkiete gogora, gaurko beren bizitzarekin ezer gutxi ikus-tekorik duen mundua.

Eta, hala ere, pertsona hauetako asko Jainkoaren bila dabil nolabait. Inoiz, beren bihotzaren barruenean badute susmoa, Jainkoa beraiek uste izan duten baino handiagoa dela, hobe eta adiskideagoa. Baina, nola aurkitu Bera? Zer

egin, beren zalantzak ugariak direnean, beren burua benetan fededuntzat har-  
tzerik ez izateraino?

Ebanjelioaren aldarrikapen berri baten eske daude zalantza artean sines-  
tedun diren edota fede eraberritu baten beharrea dauden sinesgabe hauek.  
Norbaitek esan behar die, Jainkoaren aurrean egiatasunez bizitzeko ez dela be-  
harrezko galdera eta zalantza guztiak argitzea. Norbaitek erakutsi behar die  
Jainkoa bilatzen eta Jainkoarengan benetako uste ona izaten, nahiz eta kristau  
mezuaren zenbait alderdi ziur azaltzeko gai ez izan. Berri On hau daukate en-  
tzun beharra: Jainkoak ulertzen duela zalantza egiten duenaren bihotza, eta  
hurbil dagoela, Bera egiaz bilatzen duenarengandik.

- ***Elkarrizketa-jarrera***

**62.** Ebanjelioaren aldarrikapenak galdu egiten du bere indar salbatzailea, bal-  
din eta presioa edota bortxa erabiltzen badira ezartzeko. Ebanjelioaren eskain-  
tza jauntxokeriaz egina denean eta salbamen-eskaintza ez, baizik eta mehatxua  
eta gaitzespena denean, ez dio lagunduko gaurko gizakiari Jesukristoren  
Jainkoagana zabaltzen.

Kristau aldarrikapenak adiskidetasun eta elkarrizketa-jarreratik sortua  
izan behar du; horrelako jarrera, ordea, fededunok gaurko gizakiaren arazo eta  
galderak elkarrekin bizitzen dakigunean bakarrik eman daiteke, geure buruak  
sinesgabeen albora edota berorien gaintetik jarri gabe disimuluan. Sinesgabeak  
edo zalantza eta galderaz josia bizi denak ezingo du gaur salbamen-mezurik en-  
tzun, gudan harrokeria eta gehiago garenaren uste isila sumatzen baditu, eta  
gudan ezintasuna ikusten badu haren abiapuntua, galderak, kritikak eta bila-  
keta-ahalegina ulertu eta onartzeko<sup>74</sup>.

- ***Moralaren kristau aldarrikapena***

**63.** Kristau bihotz-berritzea ez da eduki moralik gabeko atxikimendu erlijioso  
hutsa. Jainko Aitarekin elkartzeak gizakiak senide bezala zerbitzatzea dakar on-  
dorio; Jainkoaren Erreinura itzultzea, zuzenbidean, egian eta solidaritzan oina-  
rritutako konpromezu bihurtzen da; Jainkoa onartzea ebanjeliozko balioekin  
ondo josten den bizitzan gauzatzen da: familiako, profesional laneko, sozial ha-  
rremanetako eta ekonomi eta politika alorreko bizitzan, alegia.

Aldi berean, Kristorenganako atxikimendua indartzen denean, biziagoa  
egiten da, Ebanjelioko mezuari aurrez aurre jarria dagoen guztiarenganako ar-  
buiua ere; beharrezkoagoa gertatzen da, norberaren, gizartearen eta egiturazko  
bekatuaren salaketa anaikorra eta ebanjeliozkoa, pertsonaren duintasunaren  
aurka dagoen zerbait delako, eta zuzengabekeria eta maitasun ezaren jarreretan  
oinarritua dagoelako. Salaketa hori ere Berri Onaren aldarrikapenaren alderdi  
bat da.

Baina kristau moralaren aldarrikapena gogor arbuiatua dago gaur egun,  
eta zorrotz kritikatu. Errazena zera esatea izango litzateke: Ebanjelioa, atzo

---

<sup>74</sup> Ikus gure Pastoral Idazkia, *Fededun izan federik ezak jotako egunotan* (1988, Gari-  
zuma-Pazkoa), 72-73. z.

bezalaxe gaur ere, eskandalobide eta zorakeria dela, berekoia eta atseginzalea den, eta bekatuaz markatua dagoen mundu honentzat. Baina, aldi berean, galderra egin behar diegu geure buruei, guk egiten dugun moralaren aurkezpenak zergatik ez ote duen lortzen indar erakargarri izatea gaurko gizakiaren egitasmo eta bizitzarako.

Konturatu behar dugu, kristau moralaren aurrean gaur egun dagoen kontrako jarrera funtsezkoago eta sakonagoa dela, berorren eduki konkretu batzuei buruzko arbuia baina. Kristau moralak Kristo du bere erdigune eta ardatz, eta ez daiteke ez ulertu ez onartu, Kristori fedez atxikiz eta Kristorengana itzuliz ez bada. Horregatik, Kristo «bide, egia eta bizia»<sup>75</sup> bezala onartzen, eta Espiritua barneratzen ez bada, zail izango da kristau moralaren jarraipenik izatea.

Beraz, orain arte izan ez den bezalako zeregina daukagu geure aurrean: kristau moralaren subjektua berriro eraiki beharra. Eta kristau subjektu hau Jesukristo aldarrikatetik eta Berori askatasunez eta pozez onartzetik bakarrik jaio daiteke, moral arauak errepikatetik baina seguruago; izan ere, hauek ulergaitzak gertatuko zaizkio eta onartezinak, beroriei oinarria eta esanahia ematen dien kristau ikuspegiarekiko loturarik gabe.

Aldi berean, Jesukristoren aldarrikapen horretan beharrezkoa da Jainkoa gizatasun osoaren berme, zentzuaren iturri eta giza askatasunaren sendabide gisa azaltzea argi eta garbi. Orduan bakarrik izango da posible «ebanjeliozko biziera» eredu gisa aurkeztea; eta, hain zuzen, giza egitasmoaren kontrako edota berorrekin zerikusirik gabea ez, baizik eta berorren zehaztapen eta gauzatzerik beteena den eredu. Gaurko gizakiak ez du onartzen, inolako agindurik «Jainkoaren nahia» edota «Jainkoaren agindua» omen delako, besterik gabe; ikusi egin behar du, agindu horiek gizaerakoak eta gizaeratzailleak direla, gizakiarentzat zuzen, egoki, egiazko eta on dena bakarrik adierazten dutela, eta lagundu egiten dutela egiazko giza egitasmotik inola ere ez aldentzen.

Gaurko gizakiari moralaren aurkezpena egitekoan, garrantzi erabakiorreko gauza iruditzen zaigu erdizkako azalpenak baztertzea, mezuaren egia osoa itxuraldatzen duten irakurkera murriztuak ez egitea, eta Elizarekiko batasun eta irakaspenarekin bat ez datozen azalpen subjektiboak ez egitea<sup>76</sup>.

## Jesukristoren lekuko gizarte arduragabea

**64.** Kristau fedea bizikizun da doktrina baina lehenago; hain zuzen ere, biziaren Jainkoa, Jesukristorengan agertu eta gizon egin den Jainkoa, aurkitu izanaren esperientziatik sortzen da, eta Beronen grazia salbatzailea ere aurkitu izanaren esperientziatik. Horregatik, Jesukristo, doktrina bat erakutsiz baina gehiago, bizia eskainiz aldarrikatzen da. Baina, batzutan, ardura gutxi jarri izan dugu geure fede-esperientziaren eta geure bizitzaren testigantza ematean, hartu dugun Ebanjelioaren bidez on bihurtua eta eraberritua izan den bizitzarena, noski. Benetan gauza berria izango litzateke, geure pastorgintza ebanjelizatzailean geure fedearen kontakizuna eta geure bizitzaren testigantza sartzea.

---

<sup>75</sup> Jn 14,6.

<sup>76</sup> Ikus, batez ere, Joan Paulo II.aren *Veritatis splendor* Aholku-idazki apostolikoa.

Gurea bezalako gizarteak, ebanjelizatua izateko, fede biziko lekukoak behar ditu, batez ere. Askorentzat, kristautasunarekin harremanetan jartzeko egokiera bakarria fededunekin topo egitea da, eta berauen bizitzetan Ebanjelioak duen indar salbatzaile eta gizaeratzzailea ikustea. Testigantza hori gabe, Jesukristoren Jainkoak iritsi ezina izaten jarraituko du horientzat. Oraindik ez dugu era zabalduan nabaritu, harreman pertsonalak, norberaren fedearen kontakizunak eta ebanjeliozko bizimaila onaren kutsadurak gure artean gaur egun izan dezaketen eragin ebanjelizatzailea.

- ***Ez nolana hiko testigantza***

**65.** Baina oraingo gizartean ez da ebanjelizatzaile gertatzen fedearen edozein biziera. Ez du edozerk Jesukristoren Jainkoaren aldeko testigantza ematen, ezta era berean ere. Ez da nahikoa eliztar zintzo bezala azaltzea, ezta jendaurrean katoliko elizkoi gisa agertzea ere.

Badira kristau testigantzaren bi ezaugarri gaur nahitaezko iruditzen zaizkigunak: alde batetik, gizakien bihotza bereganatu nahi duen jainko asko dagoen gizarte honetan –agintea dela, dirua, sexua, kontsumoa, ospea, ongi izatea–, gure bizitza xume, elkarteko eta senideartekoak zera adierazi behar du: asko badira ere munduan horrelako jainkoak eta jaunak, guretzat ez dela Jainko bat besterik: Aita, gauza guztien sorburu eta helburu dena, eta bat bakarria dela Jauna: Jesukristo<sup>77</sup>. Bestetik, garbi erakutsi beharko dugu geure jokabide praktikoz, ez dagoela benetan hartzerik Jainko hori, benetan hartu gabe gizakia. Ez dagoela Aita honen Erreinua onartzerik, senidearteko gizarte zuzenagoa eraikitze-lanean sartu gabe.

- ***Fededun bakoitzaren testigantza***

**66.** Ez dago isilean eta ezkutuan bezala sinesterik. «Pentsa ezina da, Hitza onartu eta Erreinuaren alde bere burua eskaini duen gizakiak gero testigantzarik ez ematea eta ez aldarrikatzea»<sup>78</sup>. Ebanjelizatzeak eragina izan dezan, guztiz erabakiorra iruditzen zaigu oharturik egotea, zer den kristau izatea: testigu, ebanjelizatzaile eta fede-adierazle izatea, alegia. Hori gogoratzen zigun Vatikanoko II.ak: «Gizon eta emakume sekularren zereginik printzipalena Kristoren testigantza ematea da, bizitzaz eta hitzez eman behar duten testigantza, familian, beren gizarte-taldean eta laneko alorrean»<sup>79</sup>.

Guk geuk, orain dela urte batzuk, «aitortzen den fedea» bizitzera dei egiten genizuen hitz hauekin: «Guztiok ditugu geure inguruan sinesmenetik urruntzen joan diren senitarteko eta lagunak, edota beroriekin batera bizi gara. Zergatik isilean gorde behar diegu geure fede-esperientzia, geure sinesmena eta geure fedeari bizitasuna ematen dioten arrazoibideak? Guraso kristauek zergatik uko egin behar diote hain erraz, beren fedea seme-alaben aurrean azaltzeari eta aitormenten egiteari? Hezitzaile eta irakasle kristauek zergatik isilean eduki behar dute beren norberatasuna, besteak beren ateismoaz harroturik dabilozan bitar-

---

<sup>77</sup> Ikus 1 Kor 8,5-6.

<sup>78</sup> Paulo VI.a, *Evangeliū nuntiandi* Aholku-idazki apostolikoa, 24. z.

<sup>79</sup> *Ad gentes*, 21. z.

tean? Fededunok zergatik isildu behar dugu bizitzari buruzko geure kristau ikuspegia, besteek beren ez-sinestea agerian adierazten dutelarik?»<sup>80</sup>.

- ***Elkartearen testigantza***

**67.** Baina ez da aski fededun bakoitzaren testigantza. Batzuen bakarkako testigantza hori hutsean edo moteldua gera daiteke, kristau elkarteak arlote eta erdipurdiko direlako. Ez dugu ahaztu behar, guk askotan kristautasunaren ereduaz hitz egiten dugula, baina jendeak ikusten duena, begien aurrean dauzkan parrokia eta kristau elkarteetan bizi dugun kristautasuna dela.

Ebanjeliozko bizitzaren argia zabalduko duten elkarerik gabe, gure elizbarrutiak indar ebanjelizatzailek gabe geratzen dira, neurri handi batean. Gure kristau etorkizuna, batez ere, parrokia eta elkarteen bizi-indar berriaren baitan dago. Garrantzizkoa izanik ere, erabakiorrena ez da pastoral lana bera eraberritzea, baizik eta gure elkarteak Ebanjeliora itzularaztea eta eraldatzea.

Elkarte hauek ez dira ebanjelizatzaile izango gaur, baldin eta elkarbizitzaren eta bizitza gizaerazkoagoaren legami izaten ez badira. Baldin eta solidaritza, bakegintza, neurritasun egokia, behartsuari laguntzea, elkarrizketa, barkamena, otoitza, betiko biziaren itxaropena eta gaurko gizartean ahaztu egiten direla dirudien hainbat balio indartzeko leku gertatzen ez badira.

Gogora ekarri nahi dugu, erlijioso-elkarteen testigantzak gaur izan dezakeen balio berezia, elkarte horietan Kristoren jarraipena sustrai-sustraitik bizi denean eta Jainkoaren Erreinuari garbi-garbi zerbitzu egiten zaionean, senidearteko bizitza xumea eramanez, eta babesgabe eta ahaztuei bihotz zabalez eta dohainik zerbitzu eginez, kristau itxaropenaren argira. Hain sustraitik bizi den Kristoren jarraipena galdekizun izan daiteke gure egunotako gizaki nihilistarentzat.

## **Kristauen konpromezu eraldatzailea**

**68.** Eliza ez da Jainkoaren salbamena aldarrikatzen duen elkarte hutsa; Jesusen salbamen-ekintzari jarraipena ematen dion herria ere bada. Elizaren zeregina ez da Kristo aitortzea bakarrik, Haren historiari jarraipena ematea baizik. Horregatik, gaur ere gogoratu beharra daukagu, ebanjelizatzea mezu bat errepikatzea baino zerbait gehiago dela: Jainko salbatzaile horren maitasuna begibistako egitea da ezaugarritan eta egintzatan. Gaurko gizakiek nekez sinestuko dute Jainkoaren dohainezko maitasunean, Jainkoagan sinesten dutela diotenen maitasuna nabari ez badute.

- ***Gizakiari zerbitzua***

**69.** Bizitzaren sekulartze gero eta handiagoak, hedatua dagoen pentsamolde funtsik gabeak eta munduaren ikuspegi-aniztasunak zail egiten dute, gure egunotako gizakiarentzat ulergarri izango den Jainkoari buruzko hizkuntza erabaki-

---

<sup>80</sup> Ikus gure Pastoral Idazkia, *Fededun izan federik ezak jotako egunotan* (1988, Gari-zuma-Pazkoa), 65. z.

tzea. Baina bada denona den alor bat, eta hor posible da elkarrizketa egitea eta Jainkoa aldarrikatzea: gizakia bera, alegia, bere galdera, amets eta beharrekin, eta poliki-poliki egin beharra dagoen gizadigintzaren zeregin handia. Gure gizarte honetan hainbat zuzengabekeria eta bekatuzko egiturek beren eragina duten arren, gizakia da, beti ere, gaurko irrika eta egitasmo askoren erdigunea, eta gizakia, «gu gizonongatik eta gu salbatzeko» gizon egindako Jainko-Semearen gizakundearen arrazoia.

Jainkoaren izena argi eta garbi aldarrikatua izan dadin gaur, arbuiaketarik sortu gabe edota huskerian edo esanahigabekeria geratu gabe, aldarrikapen hori gizakiaren aldeko konpromezutik dago egin beharra. Horregatik, Joan Paulo Mak esan duen bezala, «Elizak sentibera izan behar du gizakiaren egiazko onaren zerbitzuan dagoen guztiarenganako; eta ezin daiteke arduragabe geratu gizakia mehatxatzen duenarenganako»<sup>81</sup>. Ez da posible, «ikusten ez dugun» Aita ona aldarrikatu eta «ikusten dugun» senidearen onaz ez arduratzea.

Honek esan nahi du, gizaki konkretu honi egindako zerbitzu bezala bulztatu behar dugula ebanjelizatzea. Horregatik daukagu ikasi beharra fedearen indar gizaeratzaileria era argiagoan azaltzen, bai nor bakoitzaren eta famili bizi-tzan, bai elkarbizitza sozialeko ihardunean eta egituretan. Horregatik daukagu gizaeratze-zereginetan beste gizon eta emakumeekin solidaritaz elkarlanean aritu beharra ere, fedea duen indar salbatzaileria eta galdegilea, eta itxaropena ere eskainiz.

### • *Zuzenbidearen alde lan eginez*

**70.** Ezkutatua dago Jainkoa gure egunotan, ez bakarrik erlijio-gaien kultura alorreko isiltasunagatik, baita gizakien zuzengabekeriagatik ere. Kontuan hartu behar dugu, zuzengabekeria ez dela munduko egoera sozialaren ezaugarri hutsa; munduko egoera erlijiosoaren osagai ere bada; hain zuzen ere, era desberdineko zuzengabekeriak gure artean dagoen sasijainkokeriaren ondorio dira, eta, aldi berean, beroriek indar ematen diote era askotako idoloen gurtzari. Horregatik, Jainkoa agerian jartzea ez da Haren izena agerian aldarrikatze hutsa; Haren Erreinua eta zuzentasuna munduan ezartzea da. «Zuzenbidearen aldeko ekintza eta mundua eraldatzeko langintza Ebanjelioaren predikua osagaiak dira argi eta garbi, hau da, Elizaren zeregina da, gizadiaren berrerospenerako eta egoera zapaltzaile guztien askapenerako»<sup>82</sup>.

«Ateismoaren harkaitza» den gaizkia da, oraindik ere, askorentzat Jainko Onaren eta Salbatzailearen mezua onartzeko eragozpen handia. Horregatik, Jainkoari buruz kristauok gaur egun egin dezakegun aldarrikapenik sinesgarriena, agian, gizakion zuzengabekeriatik sortuak direlako konponbidea duten gaitzen aurka ahaleginak egitea izan daiteke; eta ezinbestekoak diren gaitzen mende daudenenganako errukia, zerbitzua eta solidaritza izatea.

Ez da alferrikakoa gure artean zuzenbidearen aldeko zereginik garrantzitsuenetako batzuk gogora ekartzea: pertsonaren bizia zaintzea bere sorreratik heriotza arte; zuzenbidezko bakea lortzea; pertsona konkretuen duintasuna eta

---

<sup>81</sup> Joan Paulo II.a, *Redemptor hominis* Aholku-idazki apostolikoa, 13. z.

<sup>82</sup> Gotzainen Sinodoa 1971, *Zuzenbidea munduan*, Sarrera.

eskubideak babestea; egiazko solidaritza izatea gizarteko behartsu berriekin eta baztertuekin; etorkizun duin eta itxaropentsuagoa sortzea gazteentzat; lurreko herrialde pobreekiko solidaritza laguntza; izadiaren zainketa eta ekologiaren oreka.

- **Behartsuen ondoan**

**71.** Gizakien zuzengabekeria egoera hauetan mamitua azaltzen da: gaurko gizartean, era batera edo bestera, sufrimena, bazterketa, lotsa gorria edota itxaropenik eza nozitzen duten guztien egoeran. Horregatik, behartsuak, oinarritzko beren eskubideetan erasotuak, gaizki erabiliak, horiek guztiak dira, inor baino gehiago, Jesukristoren Jainkoaren aldarrikapena, eta Jainkoaren Erreinua eta Haren zuzentasuna eskatzen dutenak. Aita Santuak gogoratu digu hori behin baino gehiagotan: «Ebanjelizatze berria ez litzateke egiazkoa izango ez balitu jarraituko pobreak ebanjelizatzerara bidalia izan zen Kristoren arrastoak»<sup>83</sup>.

Orain dela urte batzuk egiten genizkizuen galdera batzuk dakartzkizuegu gogora: gizarte honetan aldarrikatzen ari garena eta gure parrokia eta elkartean eragiten ari garen bizitza, «Jesukristoren Berri Ona» ote da gure artean bizi diren behartsu konkretuentzat? Nola izan daiteke sinesgarria Jainko Aitari eta senide diren gizakiei buruzko gure mezua, ez bagaude beroriengandik hurbil, ez baditugu berorien arazo eta sufrimenak geure gain hartzen, horien eskubideak zaintzen, eta bizitza gizaerako eta duinagoaren aldeko horien ametsak ere egingtzara ematen ez baditugu? Zer-nolako Ebanjelioa entzuten da gure Elizetan, gizarteko behartsu eta ahaztuenei inolako salbamenseinalerik iristen ez bazaie?<sup>84</sup>.

## **Bihotz-berritzera deia gaur egun**

**72.** Oraindik ere gehiengoa dira, inkesten arabera, beren buruak katolikotzat hartzen dituztenak; baina portzentaia horiek ez dago ontzat ematerik, edota asko murriztu beharko litzateke katoliko izateari buruzko ikuspegia<sup>85</sup>. Horietako asko, bataiatuak egon arren, ez dira ebanjelizatuak izan, eta ez dute Jesukristorengana bihotz-berritzearen esperientziarik bizi izan ere. Jainkoaren misterioak ez du esanahi berezirik, ez horien bakarkako bizitzan ez bizitza sozialean.

- **«Lehenengo bihotz-berritzea»**

**73.** Pertsona hauek izan dituzten arrazoibideak eta ibili dituzten bideak oso desberdinak dira: elizkizunetara joateari utzi, moral krisia, ezkontzari buruz legez kanpoko egoera, fedearen kontrako ideologia gogorren eraso, bizitza materialista, erlijioari buruzko itsuskeriak edo esperientzia txarrak, inolako kristau sarbiderik ez egin izana... Gaur egun pertsona arduragabeak edota sinesgabeak dira.

---

<sup>83</sup> Joan Paulo II.a, *Homilia Hitzaren liturgi ospakizunean*, Viedman (Argentinan), 1987-IV-7, 3. z.: *Ecclesia* 2.317 (1987), 637. or.

<sup>84</sup> Ikus gure Pastoral Idazkia, *Behartsuek Elizari deiadar* (1981, Garizuma-Pazkoa).

<sup>85</sup> Ikus *Ebanjelizatzea eta gaurko gizakia* Kongresua (Madril 1986), 542. or.

Gure artean berria den egoera hau galdekizun gertatzen da gure Elizentzat. Ohizko gure pastorgintza ez dago moldatua, Jainkoarekin berriro topo egiteko bide izan dadin jende arduragabe edota sinesgabe hauentzat. Baina, hain zuzen, lan hau egitera deitzen zaigu gaur. Jesukristoren Jainkoarekin topo egiten laguntzera, alegia, bihotz-berritzeko deia inoiz pertsonalki hartu ez duten gizon-emakume hauei. Kontua ez da, beraz, «bekatariei bihotz-berritzea predikatzea», baizik eta «lehenengo bihotz-berritzea» sortaraztea, hau da, gure bizitzari norabide berria ematen dion Jainkoa Maitasun erabatekoa eta guztiz leiala denez onartzea.

Jakina, honek ez du esan nahi, bihotz-berritzea etengabeko prozesu gisa baztertu behar denik, Kristori gero eta atxikimendu handiagoa izanez, alegia, eta gure bekatuei uko eginez, Penitentziako sakramentuaren ospakizuna oinarri eta eragile harturik.

- ***Esperientzia erlijiosoa berregitea***

74. «Lehenengo bihotz-berritze» horretarako deiak zera eskatzen du: oinarri-oinarritik esperientzia erlijiosoa berregitea, gauzak hasiera-hasieratik hartuz eta pertsona horientzat bidelagun izanez ibilbide erlijiosoa, esperientzia erabakior gisa Jainkoa pozez eta esker onez onartzera eramán ditzan ibilbide horrek, eta esperientzia horretatik den-denak bere esanahia, norabidea eta itxaropena izan dezan.

Kontua ez da, beraz, irakaspen-prozesu bat egitea, ezta katekesi erakusketa ere; alderantziz, galderak aurrean jartzea esan nahi du, Ebanjelioa aurkeztea eta baldintza egokiak sortzea, bakoitzari Jainkoaren dei pertsonala entzuten lagun diezaion eta Jesukristorekin elkar aurkitze salbatzailea gerta dadin, hori gabe ez baita posible pertsonak bere burua benetan kristautzat hartzea.

Honek eskatuko luke, ohizko katekesi iharduera ez bezalako topaketak egitea; eta topaketa hauetan aparteko lekua izango dute: pertsona bakoitzaren egoera ulertzeak, zalantza eta aurre-iritziak benetan entzuteak, ebanjelizatzailearen beraren fede-testigantzak, bilaketa-otoitzak –«sinesten dut, Jauna, baina sendotu Zuk nire sinesmena!»<sup>86</sup>–, ebanjelioetako Jesusen hitzak zuzenean entzuteak, «esperantzarik eta Jainkorik gabeko mundu honetan»<sup>87</sup> norberaren bizitzaren azterketak eta, batez ere, dohainezkoa eta askatzailea den Jainkoaren aldarrikapenak. Ibilbide honetan guztian, ezinbestekoa da harreman pertsonalak izatea ebanjelizatze bide gisa; izan ere, azken batean, «ba al da Ebanjelioa emateko beste biderik, norbere fede-esperientzia emateaz besterik?»<sup>88</sup>.

- ***Bihotz-berritzea berri on gisa***

75. Gaurko gizakiaren krisia, neurri handi batean, zoriontasun-bilaketaren krisia da: gaurko gizakiak ez du asmatzen zoriontasuna ulertu eta bilatzeko era-

---

<sup>86</sup> Mk 9,24.

<sup>87</sup> Ef 2,12.

<sup>88</sup> Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki apostolikoa, 46. z.



rik. Gogorrena da, fededunok, askotan, ez dugula asmatzen fedea beteagoa, osasuntsuagoa eta, bere neurrian, zorientsuagoa den bizi bezala eskaintzen<sup>89</sup>.

Horregatik, gaur egun eskatzen zaiguna ez da berriro ebanjelizatzea, era berri batean ebanjelizatzea baizik, gaurko gizon-emakumei lagundu ahal izateko, Jesukristorengana bihotz-berritzea biziera eta izaera berri batera igarotze gisa senti dezaten, biziera eta izaera osasuntsuago, egiazkoago eta pozgarriagora igarotze gisa, alegia. Jainkoarengana itzultzea gauza ona da, on egiten du. Maitatzeko, elkarrekin bizitzeko, lan egiteko, sufritzeko eta hiltzeko era berriak eta gizaerakoagoak erakusten dizkigu, eta indar ematen digu horretarako.

## **Gure kristau elkarteetako harrera**

**76.** Urte hauetan zehar ikusi dugu, bataiatu askok utzi egin duela kristau elkarteak, igandeko batzarretik urrunduz eta elkarrekiko lotura galduz gero eta gehiago. Aldi berean, nahigabea ematen digu ikusteak, gazte asko ez dela kristau elkartera biltzen, ezta Sendotzako sakramentua hartu ondoren ere.

Baina fedea ez da bakarka bizitzen. Kristau izatea elkarte batera biltzea da, eta bere fedea beste fededunekin batera bizitzea, horrela Jesukristoren Eliza osatuz. Elizaren barruan bakarrik botatzen ditu fededunak zainak Ebanjelioan, hor hazten da Apostoluen tradizioan eta hor janaritzen, denen Eukaristian.

### **• *Kristau elkarten biziberritzea***

**77.** Ebanjelizatzeak kristau elkarte biziak eskatzen ditu gaur, elkarte horietan zalantzan dauden fededunek edota berriro Ebanjeliora itzuli direnek beren «etxea» aurki dezaten, beharrezkoa baitute etxe hori beren fedea hazi, garbitu eta aberastu dadin. Horregatik azpimarratu du Aita Santuak, «ebanjelizatze berri hau... eliz elkarte helduak sortzera deitua dagoela, elkarte horietan fedea jatorrizko bere esanahia askatasunez betetzea lor dezan, hau da, Kristoren pertsonari eta Haren Ebanjelioari atxikirik bizitzea, Berarekin topo egin eta sakramentuzko elkartasuna lortzea, eta bizitza maitasunean eta zerbitzuan bizitzea»<sup>90</sup>.

Orain dela urte batzuk izan genuen egokiera zuei kristau elkarteari buruz hitz egiteko<sup>91</sup>. Gaur berriro gure kezka bikoitza azaltzen dizuegu. Anonimoak diren eta ohiturakerian sartuak dauden elkarte horiek kezkatzen gaituzte, geldoegiak baitira etxearen beroa eskaintzeko eta fede bizi baten oinarri izateko. Baina barru aldera bilduegiak dauden talde eta elkarte horiek ere kezkatzen gaituzte, ustekabean fedea beren taldearen interesei begira eta besteekiko aldeak markatuz bizitzeko arriskua daukatelako.

Fedezko kristau elkarte bizia sortzeak utzi ezinezko helburu izan behar du federik ezak jotako gure egunotan. Horregatik adoretzen zaituztegu aurrera ja-

---

<sup>89</sup> *Felicidad y fe cristiana*. Sinesgabeekiko elkarriketarako Aita Santuaren Kontseiluaren idazlana, Herder (Madril 1992).

<sup>90</sup> Joan Paulo II.a, *Christifideles laici* Aholku-idazki apostolikoa, 34. z.

<sup>91</sup> Ikus gure Pastoral Idazkia, *Eliza, elkarte ebanjelizatzailea* (1983, Garizuma-Pazkoa).

rriai dezazuen, gero eta beroago jarraitu ere, parroketan ari dituzuen eginahal, esperientzia, saiakera eta zuzenketak egiten elkarte biziberritu horren bila, fededunek bizi ahal dezaten gaur egun, era pozgarrian eta senideartean, beren fedearen esperientzia, testigantza eta konpromezua.

- ***Elkarte harreragileak***

**78.** Ebanjelizatzeari bultzatzeko, «behar-beharrezko ikusten dugu harreragilea izango den erako parrokia egiten saiatzea, guztiak beren etxean bezala aurkituko diren parrokia»<sup>92</sup>. Honek esan nahi du, hurbiltzen den guztiari harrera ona egitea, lagunartekoa, eskuzabala eta beroa. Bidezkoa da sakramentuak ondo ospatu nahi izatea; baina horrek ez du eragozpen izan behar era ebanjeliozkoan eta ebanjelizatzailean harrera ona egiteko, elkartera, bakar-bakarrik, beren seme-alaben Bataioa edota Lehen Jaunartzea dela medio hurbiltzen direnei. Kristau elkarteek prestatu egon behar dute kristau fedea argitu eta hazi ahal izateko bidea eskaintzeko, elkarteko kideren batzuk bidelagun dituztela; hauek, ibilbidetan beharrezko diren azterketak egitearekin batera, Kristorengana hurbilduko dituzte eta fedearen oinarri diren osagaiak aurkitzen lagunduko diete.

Asko samar dira, apaiz nahiz sekularrak, eskari erlijioso hau eragozpen gisa hartzen dutenak ebanjelizatze-lanerako. Baina kristau elkartera hurbiltze honek, nahiz eta garbia ez izan, dudamudakoa baizik, pertsona horietan gordean oraindik ere kontzientzia erlijiosoa badagoela adierazten du. Ez gara «doidoi biztua dagoen metxa itzaltzen» hasiko, baizik eta onartu egin behar dugu une horrek eskaintzen digun ebanjelizatze egokiera.

Gogora ekarri nahi dizuegu, bestalde, guztioi, beren ezkontza legez kanpoko egoeran bizi duten bataiatuek ez diotela horregatik Elizako izateari utzi. Gure Jauna hartzera onartuak ez izateak ez du esan nahi elkartetik botetak izan direnik. Beste kristau guztiek bezalaxe, badute eskubide Jainkoaren Hitza entzuteko, eta eukaristi batzarrean eta elkartearen otoitzean parte hartzeko; eskubide dute, beren fedea bizi eta beren seme-alabei kristau heziera emateko beharrezkoa duten laguntza eskuratzeko. Ebanjelizatzailea izan nahi duen pastoraltzak ez du bazterrera utzi behar huts egin duten ezkonduenganako ardura.

---

<sup>92</sup> *Parroquia evangelizadora Kongresua*, Edice (Madril 1989), 163. or.

## V.- PASTORAL EBANJELIZATZAILE BATERA ITZULI BEHARRA

**79.** Pastoralta ebanjelizatzaileira itzuli beharraz hitz egitean, ez dugu esan nahi, Elizarekin gutxi-asko harreman estuan jarraitzen duten beste kristau gazte eta adinekoak zaindu behar ez direnik; kristau elkarteak lagundu egin behar die hauei ere sinesmenean hazten, dituzten beharretara egokituz. Guk nahi duguna zera da: gure elizbarrutiok ardura nabarmena izan dezatela urrunduen eta fedea ia galdua dutenen alde, edota hotz eta motz bizi direnen alde; eta eliztarrek beren pastoral ahaleginik hoberenak jar ditzatela Ebanjelioa hots egitearen zerbitzura.

Pastoral ebanjelizatzaile honek egoera berri bati erantzuten dio: sinesmen mailako krisialdiari, Eliza utzi izanari, erlijiozko hoztasun eta moztasunari. Jarrerara berriak eskatzen ditu gainera: kristau kontzientzia berreskuratzea. Eta helburu berriak ditu: Ebanjelioa lehen aldiz hots egitea, Jesukristogana bihurtzeko deia egitea, fedea esnatzea. Pertsona berriei zuzentzen zaie: kristau elkar-  
tea bertan behera utzi dutenei. Gaurregungo gure pastoraltzaren edukiak berri-  
kustera behartzen ere du: ekintza guztiek ebanjelizatzaile eitea behar dute hartu eta fedea hots egitearen mamia zaindu. Kristau elkartearen bizitza eta jokabi-  
deak berri-kustera behartzen du: bai elkar-  
tea, bai egiten den aitortpena eta bai hartutako erantzuki aldatzailea bizkortzea. Metodo berriak ezartzera behartzen du: urrun dauden pertsonekin elkartzea eta fedea bihotzez aurkeztea. Eliz bi-  
zikizun berna du abiapuntu: Eliza honek berreskuratu egin nahi ditu hasierako bere espiritua eta bere izaerarentzat funtsezkoa dena: Jesukristo aldarrikatzea.

Zenbait alor aurkeztu nahi dizkizuegu, agertuz non iruditzen zaigun guri beharrezko, pastoral ebanjelizatzaile honen eragina eta bulkoa indartzea. Gal-  
dera honi nahi genioke erantzun: zer urrats eman dezakegu orain, eta norantz

### **Misiolari-kontzientzia berreskuratu**

**80.** Orain dela gutxi arte bizi izan dugun gizarte eta erlijiozko egoerak ebanje-  
lizatzaile den erantzukia ahaztera eramane gaitu berari, neurri batean behintzat. Gaur egun fededun guztioi eskatzen zaigu honelako kontzientzia berreskuratzea: Jaungoikoak gaur egungo gizartera bidali gaituela, gaurko munduan Jesukristo-  
ren Ebanjelioa txerta dezagun.

#### **• *Elizbarrutiaren beraren parte hartzea***

Honek auzipean jartzen gaitu, lehenengo, gu geu, Jaunaren izenean Euskal Herriko Eliza hauetako buru gauden Gotzainok. Gure Eliza hauek dei larria ent-  
zun behar dute beren bokazio ebanjelizatzailea egintzara eramatera eta beren ahaleginak bateratzera guztiona den zeregin honetan.

Guk geuk, Eliza hauen pastoral gobemutzan laguntzen diguten guztiekin batera, geure eragina eman nahi dugu pastoralta ebanjelizatzaileira itzul gaiten-  
zen, eta lehentasuna eman nahi diegu hortik sor daitezkeen egitasmo eta ekin-  
tzei.

- ***Apaizen erantzukizuna***

**81.** Urteen joanean, apaizok badugu arriskurik hasierako gure bokazio ebanjelizatzailea ahazteko, geure ministeritza eginkizun bat betetzera bakarrik bihurtzeko. Bestalde, era askotako lanez eta ekinbidez harturik gaudenez, litekeena da beharrik ez sentitzea dei berriez ohartzeko. Guztiok adoretzen zaituztegu bizkor dezazuen apostolu-karisma, eta gogorarazten dizuegu «zerk ematen dion gure apaiz zerbitzuari bere berezitasuna, eta zerk ematen dion sakoneko batasuna egunean eta bizitzan zehar arreta eskatzen diguten hainbat zeregin, eta zerk jartzen dien ezaugarri berezia gure langintza guztiei, esanez helburu hau dela, hain zuzen, gure ekintza guztietan eragile dena: ‘Jainkoaren Ebanjelioa hots egitea’»<sup>93</sup>.

Apaizen erretiro-egunak eta bizikidetzak, Teologia Fakultateetako ekintzak eta Teologi eta Pastoral Ikastetxeenak, teologia eguneratzeko ikastaldiak eta teologoek ekarriak helburu honetan behar dute bateratu guztiak: gure eginkizun ebanjelizatzailea berreskuratzean. Apaiz guztiok, zahar eta gazte, galdetu behar diegu geure buruei zer-nolako aldaketak egin behar ditugun geure bizitzan eta geure pastoraltzan, leialtasun handiagoz erantzuteko geure bokazio ebanjelizatzaileari. Oso premiazkoa da, batez ere parroketan eta kristau elkarteetan lan egiten duzuenok uler dezazuela eta bizi zuen zerbitzua kontzientzia hau edukiz: zuen lehenengo erantzukizuna elkarte hori bizkortzea dela, ezarian-ezarian taldean esnatuz hain berea duen misiolari bokazioa.

- ***Erlijioso-erlijiosoen aitorpena***

**82.** Erlijioso-erlijiosoek gaurko gizartea ebanjelizatzeke deia jaso duzue, Kristori erabat jarraitzeke hartu duzuen erabakiaren arabera. Zuen laguntza oso garrantzizkoa da pastoraltzako arlo guztietan, baina ez zaituztegu hartu nahi edozertarako prest legokeen talde gogotsu bat bezala bakarrik. Zuen ekarririk bereziena aitormenaren esparruan kokatzen da. Hala gogorarazten digu Paulo VI. Aita Santuak: «Elizak ezin ditzake bertan behera utzi Kristoren maitasunak duen trazezendentziaren lekuko aparta hauek, eta munduak ere ezin du utzi, eragozpenik gabeko askatasunez Jainkoaren Erreinua hots egiten duten argi hauek itzal daitezen»<sup>94</sup>.

Baina erlijioso-erlijiosoek erara bizitzeko dauden molde guztiek ez dute balio bera gaurko gizartea ebanjelizatzeke. Gaur egungo gizon-emakumeek zuen birjintasunaren balio ebanjelizatzailea aurkituko dute, ikusten badute ez dela bakartasun eroso eta norbera antzu bat, baizik eta gaitasun zabalagoa dela interesik gabeko zerbitzurako eta esker hutsezko maitasunerako. Zuen pobretasunaren balio ebanjelizatzailea aurkituko dute, ikusten badute ez dela bizitza antolatzeke era desberdin bat bakarrik, baizik eta benetako solidaritza eta askatasuna dela pobreenak direnen alboan bizitzeko. Ulertuko dute zuen esanekotasunaren balio ebanjelizatzailea, ikusten badute ez dela nortasuna, ekinbidea edo kreatibitatea galtzea, baizik eta eskakizun osoz Jainkoaren nahia bilatzea dela: gizon-emakumeen ona, alegia.

---

<sup>93</sup> Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki apostolikoa, 68. z.

<sup>94</sup> Paulo VI.a, *Evangelica testificatio* Aholku-idazki apostolikoa, 3. z.

Gure elizbarrutiei beharrezko zaie zuetako bakoitzaren eta zuen elkarteek lekukotza, Jainkoari eta gaurko gizon-emakumeen guztizko zerbitzuari erabat eskainirik zaudetela erakutsiz. Gogorarazi nahi dizuegu, zuek, gaurko gizarte hotz eta fedegabeko honetan erakusten duzuen pobreenganako maitasunez, eta Erreinuaren traszendentziatik eta utopiatik bakarrik ulertzen den zeuon bizitzaren arabera, baduzuela dei berezi bat: pertsonengan Jainkoaren ezagutza, otoitzak duen gozoa, barne-bizitzaren beharra eta betiko biziaren irrika esnatzera egiten zaizuen deia. Zuek parroketan dagizuen lana beharrezkoa da, bizikizun erlijiozkoa suspertu eta jasoko bada. Bestalde, elkarte kontenplariok zer nolako laguntza eman diezaiokezuen gaur ebanjelizatzeari, bi alderdi hauek elkarrekin uztartzen ikasten baduzue: otoitz egiten eta Jainkoa goستن eskainitako bizitza aitortpena, batetik, eta egiazko Jainkoa «itsumustuan» bilatu nahirik zuegana hurbiltzen direnei harrera xume eta bihozkorra egitea, bestetik!

### • *Sekularren erantzukia*

**83.** Oraindik ez gara ohartzen nolako bidegabekeria adierazten duen honek: kristau askori, baita praktikatzaileei ere, ez zaiela buruan pasatu ere egiten Ebanjelioa zabaltzera deiturik daudenik. Erabat aldatuko litzateke gure elkarteek aurpegia, kristauak konturatuko balira «kristau bokazioa, bere izatez, apostolutzako bokazioa ere badela»<sup>95</sup>.

Premia handiko gauza da, liturgi batzarretan eta kristau elkarteetan go-gora ekartzea apostolutzako bokazioa, eta sekularrei laguntzea bokazio hori berreskuratzen eta bokazio horrekin leial jokatzeko, zuzenean molde ebanjelizatzaileak duten erantzukien eta ekintzen bidez. Bestalde, katekesi ibilbideetan ez da ahaztu behar, katekesiak, bere osoan harturik, fedearen egiazko testigu eta komunikatzaileak lortzea duela helburu. Elizbarrutietako Idazkaritzari eskatzen diegu, irizpide honen arabera azter ditzatela gazteen eta adinekoen katekesi ibilbideak, metodoak, ikuspegiak eta giroa.

### • *Familia*

**84.** Gaurko familia hustutzen joan da, eta urte gutxitan galdu egin du gure artean izan duen erlijiozko mamia eta kristau edukia. Gaur, eskuarki, familia ez da «fede-eskola», baizik eta gurasoengandik seme-alabetara erlijioarekiko hoztasuna eta isiltasuna helarazten den leku da. Guraso kristauak dituen familia, ordea, «Ebanjelioa helarazteko eta distiratzeko leku izan daiteke eta izan behar du»<sup>96</sup>. Famili giroa sakonetik aldatu bada ere, familia aparteko leku da oraindik belaunaldiak beren artean komunikatzeko, pertsonen zabalkunde eta garapenerako eta, beraz, fedea helarazteko.

## **Parrokia elkarte ebanjelizatzaile gisa garatzea**

**85.** Ohikeriaz bildutako talde erlijioso bat besterik ez den lekuan, ia ezinezkoa gertatzen da ebanjelizatzea. Horregatik, gure lehen helburuetako bat zera da: parrokia ebanjelizatzeari loturik dagoen elkarte bizi bezala ulertu eta garatzea.

---

<sup>95</sup> *Apostolicam actuositatem*, 2. z.

<sup>96</sup> Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki apostolikoa, 71. z.

Jakina denez, guk gogoan duguna parrokia zabal eta integratzailea da, bertan kristau guztiak, talde desberdinek, erlijioso-erlijiosoen elkarteak eta mugimendu eta erakundeak ebanjelizatzeke zereginean elkarturik lan egiten dutela.

Horrelako parrokiak badute beren lekua, zenbait gizarte-inguruetan ebanjelizatzearen zerbitzura diharduten hainbat pertsona eta apostolutzako taldeak ere, «mugimendu berezitu» erakoek, alegia, edota Elizak onartuak dauzkan beste eratakoek. Gizarte-ingurune hauetan izan ohi diren era askotako harreman pertsonal nahiz erakundeetako bide eman dezakete, misiolari gisa Ebanjelioaren aldarrikapena egin ahal izateko eta beronen indar askatzailea eramateko.

- ***Sakonetik bihotz-berritzea***

**86.** Ez dira hain gutxi parrokiak beren abiadurari eusten diotenak baina pastoral inertzia hautsi gabe. Bat dela edo bestea dela, ez dute kemenik aski gaur egun desfioei erantzuna emateko. Hala ere, gehiago dira saiakera berrietan ahalegintzen direnak, eta bide berriak haztatzen ari direnak ebanjelizatzea indartzeko.

Ordu hau ona izan daiteke gure parrokiak helburu hau har dezaten, argi eta garbi hartu ere: pastoral bihotz-berritzea ebanjelizatzearen haritik. Elizaren bihotz-berritzearen bizikizuna da hor jokoan dagoena, parrokiaren berrikuste pastoralak eta beharrezko diren aldaketak eginez; baina bizikizun horretan garrantzitsuagoak eta lehenagokoak izango liriteke Kristoren misiolari agindua entzutea, Espirituari dei egitea eta elkarrekin aurkitzea parrokiaren ebanjelizatzeke eginkizuna eta bakoitzaren erantzuki pozgarria.

Gure parrokiatan «zerbait» gertatu behar du, dinamismo berri batek ez-tanda egin dezan: lehenengo Ebanjelizatzailearen Espiritua indartsu etortzea. Ez dugu uste izan behar, bizikizun hau askok berena egingo dutenik hasiera batean. Indartsua eta konprometitu izango bada, gutxiren gauza izango da. Zenbait lekutan ezin izango da horrelakorik egin parrokiak elkarri lagundu ezean eta beren bizikizunak elkarbanatu ezean, dela artziprestaldean, dela pastoral zonaldean. Pastoral Idazki hau bera baliagarri gerta dakizueke gogoetak egiteko eta sentiberatasuna suzatzeko<sup>97</sup>.

- ***Misiolari proiektua***

**87.** Bihotz-berritze pastoral honek misiolari proiektu batean mamitu behar du, proiektu xume baina konkretuan, bertan garbi agertuko delarik parrokiak hartu nahiko lukeen bide berria. Ez litzateke beste programa bat gehiago egitea izango, baizik eta proiektu bat egingo litzateke, eta beronen bidez aro berri bat hasiko litzateke parrokiaren historian, era apalean, bai, baina urrats erabakiorrez.

Proiektu honek era jakin bateko parrokiaren distira nahi luke izan, hau da, aurrerantzean leku horretan egiazko misio-gune izango den parrokiaren distira.

---

<sup>97</sup> Baliagarri izan daiteke, era berean, *Parroquia evangelizadora Kongresua*, Edice (Madril, 1989).

Horregatik, proiektuan puntu hauek mamituko lirateke: zehazki nori bidalia izan dela uste duen parrokiak; talde urrunduei zuzendutako ekintzak; bakoitzaren eta elkartearen testigantza garatzea; «katekesi ebanjelizatzailea» indartzea; gazteak ebanjelizatzea; gizagintzako erantzukiak garatzea; behartsuekiko solidaritza.

- ***Pastoral Kontseilua misiogintzarako***

**88.** Parrokiak bultzada berritzaile bat izango badu, urrats oso jakin eta beharrezkoa Pastoral Kontseilua sortzea da; Kontseilu honek parrokiaren eginkizun ebanjelizatzaileari bultzatzea izango luke bere helbururik garrantzitsuenak. Arazoa ez da erakunde berri bat sortzea, lehendik egiten dena zerbait hobeto antolatzeko jarria, baizik eta talde bat eratzea da, parrokiaren misiolari kontzientzia esnatzeko zeregina, eta parrokia beroni dagokion zeregin ebanjelizatzailearen aurrean jartzeko eginkizuna, uste osoz, bere gain hartzen duen taldea.

Pastoral Kontseilu hauek ez daude oraindik behar adinbat erroturik gure elizbarrutietan. Honek pentsarazten digu, agian, Pastoral Kontseilu hauek elkartzen hasi beharra daukatela zonalde mailan edota elizbarruti mailan, beren bizikizunak elkarbanatzeko eta berorien iharduera sendotzeko.

### **Aldarrikapen eta katekesi misiolaria indartzea**

**89.** Kristaua omen den gizarte honetan bidezko da umeen katekesiak bete-betean parrokiaren arreta eskatzea, uste izaten baita umeok bakarrik direla fedea ezagutzen ez dutenak. Gaurkoa bezalako gizartean, katekesi mailako planteamendu honek azterketa sakon bat eskatzen du. Ez dugu esan nahi umei zor zaien arreta baztertu behar denik –umeotako askorengan biztu beharrak daudelako beren etxeetan ezagutu ez duten fedea eta bizikizun erlijioso–, baina beharrezkoa da parrokiako katekesi zerbitzuen alor hori gehiago zabaltzea.

- ***Adinekoen katekesia***

**90.** Gure parrokiek umeen katekesia beren ikastaro, metodo eta katekesi egiturekin antolatu duten bezala, urrats zehatzak eman beharrean gaude, adinekoentzat kristau sarbiderako katekesia jarritz, etengabeko zerbitzu bezala jarri ere parrokia bakoitzean.

Prozesu bat izango litzateke, fedea kolokan duten kristaudentzat –praktikaitzaile izan edo ez– zabalik dagoena; bihotz-berritzeko bilakabide bat sortzera zuzendua egongo litzateke, eta fede pertsonalagoa, biziagoa, munduan sustraituagoa eta aitortuagoa esnatuko duten lagungarriak erabiliko lirateke.

Lehen urratsak apalak izango dira. Ez daukagu katekistarik. Ez dakigu nola dei egin. Metodo berriak ikasi beharrean gaude. Baina ez daukagu inolako zalantzarik helburu hau garbia dela, eta ardura duen parrokia orok horretan ahalegindu beharko duela etorkizunari begira.

- ***Gazteen ebanjelizatzea***

**91.** Ebanjelizatzailea den pastoraltzak gogoan behar ditu izan belaunaldi berriak, ez baitugu pentsatu behar hauek kristau izango direnik, edota berez hasi eta haziko direnik fedean. Ez badugu lortzen kristauen berri ona gazte horietara heltzea, hauetako asko Ebanjeliorik gabe geratuko dira betirako.

Denok dakigu nolako ahalegin eta saioak egiten dituzuen hainbat parrokiatan Sendotzako sakramentua dela medio. Oraintxe da unea esperientzia hori jasotzeko, emaitzak ikusteko eta oinarrizko gauzetan su eta gar berriro hasteko. Oraintxe da unea, parrokia eta kristau eskola, katekista eta hezitzaile, denok errezelo eta gaizki-ulertuak alde batera utzi eta geure ahaleginak bat egiteko, helburu jakin baten inguruan bat egin ere: gazteak ebanjelizatzearen helburuaren inguruan.

Geure aldetik, hiru zeregin zehatz proposatzen dizkizuegu, ebanjelizatze hori aurrera eramateko: zuen ahalegin guztia Jesukristogana bihur daitezten egiten diezuen deialdian jartzea: gazte hauek noizbait hartu beharko baitute funtsezko erabakia, beren bizitzak kristau norabidean jarriko dituen edo ez dituen. Bizikizun erlijioso era eraginkorragoan sartzea –otoitza dela, Hitza entzutea, beste fededunen aitortpena, Eukaristia, edota Gure Aita barneratzea–; gazte posmodernoak ez baita ebanjelizatzen kristau egiak proposatzearekin bakarrik. Elkartearen Eukaristian sarraraztea eta igandeko kristau ospakizunean parte hartzeko erraztasunak ematea; kristau elkartasunarekin loturarik gabe, ez baitu zainik botako horien fedek.

Ikastetxe ez-konfesionalek ere –publikoek nahiz ekimen sozialekoek– garrantzi handiko helduleku baliagarria eskaintzen dute, askatasunez nahi duten gazteei kristau aldarrikapena egiteko. Kontutan hartu behar dugu, gaur egungo egoeran, gazte hauetako askorentzat ikastetxe hauek ia baliabide bakarra izan daitezkeela kristau mezuarekin harremanetan jartzeko eta federa sarbidea izateko. Horregatik gure adorea eman nahi diegu ebanjelizatze-zerbitzu hau egiten ari diren hezitzaileei langintza horretan gogatsu jarrai dezaten, nahiz eta sarritan zailtasun handiak izan horretarako.

- ***Urrunduei hots egitea***

**92.** Topaketa-bideak ikasten eta saiakerak egiten joan behar dugu astiro-astiro urrundurik dauden pertsonekin, beroriei kristau fedea era garbi, apal eta testigantza mailakoan aurkezteko. Ez dugu gauza korapilatsutan pentsatu behar. Lehen urratsak xumeak izango dira, eta batez ere esparru jakin hauetan emango dira: elkarrizketaren, egiaz entzutearen, testigantzaaren eta norbere fedearen berri ematearen esparruetan. Hau dela eta, parrokiara hurbiltzen diren pertsona urrunduekin dituzuen topaketa ebanjelizatzaileak zaindu eta hobetzen jarraitzera adoretzen zaituztegu –seme-alaben Bataioa nahiz Lehenengo Jaunartzea dela eta, gurasoekin izango dituzuen topaketak, ezkontza eskatzen duten ezkongai hotzekin izango dituzuenak, urrundurik dauden pertsonen hiletak...-. Topagune egokiak izan daitezke beste hauek ere: familiekin etxeko bilerak, ebanjelizatze-ikustaldiak, Ebanjelioaren berri era bildu eta biziagoan egiteko Jardunaldi-erako deiak, edota familia gazteekin egindako topaketak.



Era honetako harremanak eduki izanak erakutsiko digu era sistematuago batean nola eman urrats berriak. Gogoan ditugu, batez ere, talde txikientzat dauden ibilbideak, katekumeno izenarekin edo gabe, katekesiarenak ez bezalako metodoez eta espirituz baliaturik, beraien planteamenduak zinetan entzuteko gogoia agertuz, gizaki orok baztertu ez ditzakeen galderak eginez, aurre-iritzi eta bizikizun ezkorrak deseginez, Jesukristogana bihurtzeari arnasa emanez.

- ***Katekista ebanjelizatzaileen prestakuntza***

**93.** Esaten ari garen guztiak geure buruak prestatzea, eta ebanjelizatzearen zerbitzurako dauden katekistak ere prestatzea eskatzen du, batez ere: beren misiolari-bokazioaren deia entzun duten kristauak, eta gaitasuna ere bereganatzen ari direnak gaurko gizon-emakumeak ebanjelizatzeko. Hil edo bizikoa da horrelako katekista ebanjelizatzaileak eratu eta moldatzea, hauen esku baitago, neurri handi batean, ebanjelizatzerantz gure parrokiek egin behar duten itzulia katekesi mailan.

Horregatik, eskatzen dizuegu, eta geure adorea ematen, elizbarrutiko Teologi Ikastetxeetako teologoei, Pastoral Ikastetxeei eta elizbarrutietako Katekesi Idazkaritzei, katekista ebanjelizatzaileak eratzeko zeregin hau une honetan zeregin nagusizat har dezazuela. Lagun iezaiezue kristau mezuaren ikuspegi argia eduki dezaten funtsezko edukiei dagozkienetan –apostoluen Kerigma–; erakuts iezaiezue topaguneak aurki ditzaten gaurko gizakiak dituen beharren eta fedek eskaintzen dituen erantzunen artean; hizkera berriak erabiltzen erakuts iezaiezue, leialtasunez aurkez dezaten fedearen betiko mezua era ulergarriagoan eta onargarriagoan. Hau izan daiteke zuen laguntzarik eragingarriena ebanjelizatzeako orduan.

### **Kristau ospakizunen eragin ebanjelizatzailea indartu**

**94.** Liturgiaren aurretik beharrezkoa da ebanjelizatze-lana egitea. Jadanik fededun direnek ospatzen dute fedea. «Gizon-emakumeak liturgiara iritsiko badira, beharrezkoa da alde aurretik federa eta bihotz-berritzera deituak izatea»<sup>98</sup>. Horregatik, kristau ospakizuna egiten dugunean, hain zuzen, batzarrean parte hartzen dutenak fededun diren ustetan aritzen gara. Baina gaur egun gertatzen dena zera da: gure liturgi ospakizunetan oso fede ahula edo fede itzalixea dutenak ere aurkitzen direla, baita fedetik urrun daudenak edota inork sekulan ebanjelizatu ez dituenak ere –hala nola, hiletetan, ezkontzetan...–.

Honek zera esan nahi du: liturgian buru egiten eta liturgia ospatzen ikasi behar dugula, ebanjelizatze on diren moduak erabiliz. Ez dugu, noski, joan behar ospakizuna desitxuratzera, ezta ospakizunari arrotz zaizkion helburuak lortzeko asmoz erabiltzera ere, baizik eta ospakizun horiek era ebanjelizatzailean egitea da zaindu behar duguna.

- ***Liturgia era ebanjelizatzailean egina***

**95.** Ezer baino lehen, ondo bereizi behar ditugu egoera desberdinak; ez baitago fedearen ospakizuna era berean planteatzerik batzarra benetako fededunek

---

<sup>98</sup> *Sacrosanctum Concilium*, 9. z.

osatzen dutenean, edota ohikeriaz diharduten praktikatzaile direnean, edota elizkizunean daudenetatik asko fedetik urrun bizi direnean.

Ohikeriaz diharduten praktikatzaileak daudenean, ebanjelizatzearen kontrakoa da ohikeria horri eustea, ospakizun hil eta motelak eginez, berauetan Ebanjelioa entzuteak eta eukaristi batasunak galdu egiten baitute interpelatzeko indar guztia. Parrokiek eta elizkizun-lekuek aztertu behar dituzte jende askoko ospakizun horiek, eta ikusi ere bai zer osagai sartu beharko lirartekeen horietan Ebanjelioko berri onak oihartzuna izan dezan: mintzaldiaren edukia, Jainkoagana lehen aldiz bihurtzeko deia, oharkizunen estilo galdekaria, isilune esanahitsuak, ondo aukeratutako kantuak... Pastoral ebanjelizatzaileak ospakizun haue-  
tan hobekuntzak sartzea eskatzen digu, eta gure esku dauden hobekuntzak eta askorengan eragin ebanjelizatzailea izan ditzaketenak ere sartzea.

Bestalde, bada baztertu behar ez genukeen beste xehetasun bat: urrundurik dauden pertsona asko urtean behin edo beste etortzen direla kristau ospakizunetara, familiako edo gizarteko loturak direla eta. Batzuk deseroso eta arrotz aurkitzen dira, beste batzuk hotz eta motz, gehienak errespetuz. Uste osoan gaude, benetan bizitutako ospakizunak, fededunek sentimenduz parte hartzen badute, ebanjelizatze indar handiagoa izan dezakeela, hitz asko esateak baino.

Horrelako ospakizunetan ez dezagula ahaztu, «Espiritu Santua dela ebanjelizatzearen eragile nagusia eta kontzientzien sakonean salbamenaren Hitza onartu eta ulertzeko indarra ematen duena»<sup>99</sup>. Guri dagokiguna ospakizuna arretaz prestatzea da, harrera ona ahalik eta gehien zaintzea, ezaugarri eta zeinuen esanahi indartsua areagotzea, hizkera, homilia, oharkizunak eta kantuak zaintzea, horrela beren ukitua egin diezaien urrundurik dauden gizon-emakumei eta bihotza Jainkoagana zabaltzen ere lagun diezaien.

### • *Igandeetako Eukaristia*

**96.** Ez dugu ahaztu behar igandeetako Eukaristiak ebanjelizatze indar ahalmenak. Vatikanoko II. Kontzilioaren arabera, igandeetako Eukaristia da «ebanjelizatze guztiaren sorburu eta gailur»<sup>100</sup>.

Eukaristiaren ospakizun hau, Jesus berpiztuaganako fede-aitorpen pozgarria bada, eta bertan zaintzen badira Hitza biziki entzutea, Kristorekiko batasuna, kredoaren aitortzen arduratsua, Jainkoari benetan dei egitea, senideen arteko elkarte, orduan parrokiaren bizikizun erlijioso funtsezkoena bihurtzen da, eta ezarian-ezarian elkarte estila sortzen du, bere sinesmenaz ohartuagoa dena, pozikago bizi dena eta ebanjelizatzea aitortzeko gaitasun handiagoa duena.

Igandez igande ospatu ohi dira horrelako Eukaristiak gure elizbarrutiotako parrokia eta elkarteetan. Zergatik ez dira bihurtzen ebanjelizatze-misioaren iturri? Hemen ere ohartu beharra daukagu geure erantzukizunaz. Ohitu egin gara, ebanjelizatze indar agindua oroitu ere gabe Eukaristia ospatzen. Eukaristiak «batzarrean» biltzen gaitu, baina ez gaitu batzarretik «kanpora bidaltzen» ebanjeli-

---

<sup>99</sup> Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki apostolikoa, 75. z.

<sup>100</sup> *Presbyterorum Ordinis*, 5. z.

zatza. Horregatik, galdera egin beharko genieke geure buruei, zer falta zaien Eukaristia horiei misio-eginkizunera bultza gaitzaten: kristau bakoitzak duen erantzukia gogoratzea ote da, edota ekintzazko alor jakinak proposatzea, misiolari konsignak, gurasoak beren heziketa-erantzukietan sentibera bihurtzea...

- ***Apaizen erantzukizuna***

**97.** Apaizok badakigu gure langintza erabakiorra dela ospakizuna prestatzeko garaian, batzarra adoretu behar denean eta liturgian buru egiteko orduan.

Gaur zuen erantzukizuna hiru erantzuki hauetan mamitzera adoretzen zaituztegu: denbora gehiago ematera ospakizunak prestatzeari, batez ere urrun dagoen jendea bilduko dela dakigunean; prestakuntza hori zaintzera, ebanjelizatzea gogoan edukiz; misiolari eite handiagoa ematera geure predikuari, kristau mezuaren berri funtsezkoa emanaz eta mezu hori era xume eta argian agertuz, fedea eta bihotz-berritzea esnarazteko, zalantzek, aurre-iritziek edota hoztasunak mendean hartutako kontzientzietan.

## **Gizagintzaren erantzukia indartu**

**98.** Gurea bezalako gizarte batean, lehen ere esan dugunez, kristau mezuaren sinesgarritasuna ez dago fedez eta behin eta berriz errepikatutako hitzen baita bakarrik. Beharrezkoak dira mezua sinesgarriago egingo duten zeinuak. Nola-bait, gaur ere Jesusen hitzak esan beharko genituzke: Niri sinesten ez badidazue ere, sinets nire egintzei<sup>101</sup>.

Guk bultzatu nahi dugun pastoraltzak ez luke izango, neurri handi batean, ebanjelizatze indarririk, mezu bat hots egitera bakarrik mugatuko bagenu.

- ***Elkartearen erantzukia gizagintzan***

**99.** Orokorki, gure parroketan garatzen den pastorgintzak lehen lekua irakaspeneri, hots egiteari, hitzari eta katekesiari emateko joera du. Ahaztuxeago dauka zeinuak, ezaugarriak eta gizartera Jainkoaren Erreinua eta beronen zuzentasuna eramaten dituzten egintzak. Pastoral ebanjelizatzaileak parrokia, eraikirik dagoen lekuan, «gizaki berriaren legami» gisa ulertu eta garatzea eskatzen du.

Gure Elizek eta gure kristau elkarteek gehiago garatu behar dute zeinu ebanjelizatzaileen pastortza, zeinu hauek sineskorrago bihurtzen baitute mezua. Ekitaldiak modu askotakoak izan daitezke, lehen ere aipatu dizuegunez: biziaren eta pertsonen giza eskubideen alde jokatzeko; bizikidetzaren baketsua zinetan bilatzea; bakearen aldeko giroa sortzea; adiskidetzeko eta barkamen zeinuak; injustizien eta mila arazoren aurrean herritarren kontzientzia esnatzera zuzendutako ekintzak; kontsumoaren aurrean bizitza latza eramatea; Hirugarren Munduarekiko solidaritza; mundu zabaleko ebanjelizatze-misioan laguntzea.

---

<sup>101</sup> Ikus Jn 10,38.

- **«Behartsu berrien» alboan**

**100.** Baina ez dugu ahaztu behar denen gainera dagoen ebanjelizatze-ezaugarria: behartsuentzat eta baztertuentzat maitasun zerbitzala izatea. Gure ebanjelizatzeak ez lioke leialtasunik gordeko Jesusi, gaur gure parrokia eta elkarteetan bultzatzen eta bizitzen duguna geure artean bizi diren behartsu konkretu horiek Kristoren Berri On bezala irakurriko ez balute.

Bizitza modernoak sortzen duen pobrezia era askotakoa da eta nahas-mahas handikoa. Bestalde, krisialdi ekonomikoa babes-falta eta behar egoera berriak sortzen ari da. «Behartsu berrien» aurpegi jakinek zerrenda luzea eta gero eta ugariagoa osatzen dute: gero eta behartsuago direnen zulora eroritako langabetuak, zaindu gabe dauden zaharrak, gazte drogazale eta deserrotuak, arbuiaututako atzerritarrak, bertako egiten ez diren bidariak, gaizki zaindutako gaixoak, bakarrik eta depresiopean dauden pertsonak, desegindako bikoteak. Honek guztiak ez digu ahaztuarazi behar, aparteko leku batean ari garela ebanjelizatzeaz hitz egiten, oso erraza baita hemen ahazturik uztea munduko po-breen eta behartsuenak.

Ikusirik gure gizarte hau zenbait sailetan zatitzen ari dela gero eta gehiago –batzuk segurantzaz eta eroso bizi direnak, eta beste batzuk segurantzarik gabe eta baztertuak–, ebanjelizatze berriak ezin ditu ahaztu «behartsu berriak». Pastoral ebanjelizatzaileak kristau elkartearen senidetasunezko arduraren eta maitasunaren ikusmiran jarri behar ditu behartsuok.

Horregatik, zeuen laguntza Karitasen, Osasun Pastoralizan eta Espetxeko Pastoralizan eskaintzen duzuenok, edota zeuen lana borondatezko era desberdinetan eta gizagintzako beste zerbitzuetan egiten duzuenok, ez pentsa urrun zaudetenik ebanjelizatzearen zereginetik. Alderantziz, jakin behar duzue, zuek izan behar duzuela, hain zuzen, kristauei ebanjelizatzearen ezaugarrikerik ederrenean lagundu behar diezuenak: pobre eta behartsuekiko maitasun eginkorrean.

Zuei eskatzen zaizue, zeuon langintza bizkortzea eta zeuon ekintza indartzea, gure Elizetan kristau solidaritza hazten lagunduko duten ekinbideak eta langintzak suztatuz. Zabala da zuen ekintzaren eremua: langabetuei eta familiari laguntzea, toxikomanoak beren onera ekartzea, zaharrak beren etxeetan zaintzea, gaixoen artean behartsuen eta ahaztuenen alboan egotea, atzerritarren alde ateratzea eta hauei harrera on egitea, bakardadearen eta komunikaziorik ezaren aurka borrokatzea, espetxetuei zerbitzu egitea, tratu txarrak hartutako emakumeen alde jokatzeko...

- ***Sekularren erantzukia gizartean***

**101.** Ez dugu ahaztu behar, sekularra, Ebanjeliora bihurtzen denean, bera dela gizarte barruan «lekuko eta, aldi berean, tresna bizi egiten dena Elizaren beraren misio-eginkizunean»<sup>102</sup>. Sekular asko eta asko ditugun arren gure elizbarrutiotan Elizako zerbitzu eta barne-egituretan ekinaren ekinez parte hartzen dutenak, horrek ez gaitu eraman behar, gizarte-bizitzako egituretan eta dinamis-

---

<sup>102</sup> *Lumen gentium*, 33. z.

moan kristauek eduki behar duten jarduera eta ekinbidea gutxiestera edota ahaztera.

Aitzitik. Elizak, munduan ebanjelizatzeko duen misioaren kontzientzia berria hartzen duenean, sekularrak bidali behar ditu beren ebanjelizatzeko zeregina, hain zuzen, gizartean osabetetzera. Jainkoak beren eginkizun berezia hor betetzera egiten die dei, Ebanjelioa bidegidari harturik, legamiaren antzera, barrutik lagun dezaten mundua santutzen»<sup>103</sup>. Bada zenbait urte, lau arlo garrantzitsu markatzen genituela Gotzainok, gaurko gizartean sekularren jarduerari buruz: familia; eskola eta kultur mundua; lanaren arloa eta profesio-bideetako ekintzak; eta politikoen arloa<sup>104</sup>.

Pastoral ebanjelizatzaileak arduraz zaindu behar du sekularren zeregin hau, eta «ez dezake bertan behera utzi eginkizun hori ebanjelizatzearen luzetabala eta edukia zatikatu edo itxuraldatu gabe»<sup>105</sup>. Horregatik, gure parrokia eta kristau elkarteek suztatu egin behar dute sekularren erantzuki hau, honek berekin duen esanahi erlijiosoa eta balio ebanjelizatzailea aurkitzen lagunduz, ekintzarako irizpideak eskainiz eta eliz elkartasuna sendotuz beti ere «mundu honetako arazoei buruz legezko iritziak errespetatuz, nahiz eta horiek elkarren artean bat ez etorri»<sup>106</sup>.

---

<sup>103</sup> Ibid., 31. z.

<sup>104</sup> *Los católicos en la vida pública*. Espainiako Gotzain-Batzarraren Batzorde Iraunkorren pastoral Irakaspena, 150-171. z.

<sup>105</sup> Ibid., 175. z.

<sup>106</sup> *Gaudium et spes*, 75. z.

## AZKENA

**102.** Guztioi berriro ebanjelizatze-lanetara dei egiten digun Pastoral Idazki hau amaitzekoan, ez dugu ahazturik uzten, «ez dela inoiz ere ebanjelizatze-lanik egingo Espirituaren ekintzarik gabe»<sup>107</sup>. Denik eta oparoenak izanik ere geure ahaleginak, eta denik eta egokienak pastorgintzan egiten ditugun aldaketak, inoiz ez dute ordezkaturiko «Espirituaren ekintza isila»<sup>108</sup>. Berori da «ebanjelizatzearen egilerik nagusiena»<sup>109</sup>, eta Beronen deia entzunez bakarrik bete dezakegu geure egitekoa.

Ez daukagu geure herriaren etorkizuna ezagutzerik. Baina badakigu fedea eta kristau bizitza errotu eta hazi ahal izango direla datozen urteetako gizarte eta kultur baldintza berrietan ere. Guri gaur eskatzen zaiguna zera da: Ebanjelioaren arabera eta ebanjelizatzaile izango den Eliza eraikitzeke gure pastorgintzaren eragina ematea. Horregatik, guztioi dei egiten dizuegu Pastoral Idazki hau irakurtzera, barrutik Espirituaren deia entzunez: «Sinesten al duzue egiaz, hots egiten duzuen? Bizitzen al duzue sinesten duzuen? Aldarrikatzen al duzue egiaz, bizi duzuen?»<sup>110</sup>.

Andre Mariak, Lehenengo Ebanjelizatzailearen Amak, Jaungoikoaren Hitzak fede osoz onartu eta zerbitzu-jarreran bizi izan zenaren testigantza, bere lehengusu Isabeli bere Semearen Berri Ona eramane zionak<sup>111</sup>, argitu eta indartu dezala ebanjelizatzeke gure zeregina.

Iruñea eta Tuteran, Bilbo, Donostia eta Gasteiz  
1994, apirilak 3  
*Piztuerako Pazkoa*

✘ **Fernando**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina  
✘ **Koldobika M.**, Bilboko Gotzaina  
✘ **Jose Maria**, Donostiako Gotzaina  
✘ **Jose Maria**, Gasteizko Gotzaina

---

<sup>107</sup> Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki apostolikua, 75. z.

<sup>108</sup> Ibid.

<sup>109</sup> Ibid.

<sup>110</sup> Ibid., 76. z.

<sup>111</sup> Ikus Lk 1,41-45.